

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ETA G. LANGINTZA

1. GAIA.

1. IRAKASGAIA ZUZENBIDE PENALAREN SARRERA, ZATI OROKORRA ETA PRESONDEGI - SISTEMAK

1.0. Justizia - Administrazioa eta zuzenbide penala.

ZUZENBIDE PUBLIKOA

Estatuaren eta erakunde publikoen harremanak arautu. Ez dira parekideak, estatuak herritarren gaitetik daude. Herritarren interes orokorra bermatu.

- Administrazio zuzenbidea
- Konstituzio zuzenbidea
- Nazioarteko zuzenbide publikoa
- Europar zuzenbidea
- Zigor zuzenbidea
- Tributu edo zerga zuzenbidea
- Zuzenbide prozesala

ZUZENBIDE PENALA beraz, zuzenbide publikoaren baitan kokatzen dugu, administrazioa horretan parte hartzen duelako. Zigor zuzenbidean pentsatzean zigorra edo kartzela bezalako instituzioak etortzen zaizkigu burura.

- Hiritarrak (delitugilea) vs. Estatua

1.1. ZUZENBIDE PENALA GIZARTE KONTROLERAKO TRESNA GISA.

EZAUGARRIAK

Pertsonak txikitatik bizitzen duen prozesua gizarteratzea daukagu, eta horretan bizi den gizarteko arau edo normak asimilatzen joaten da. Horretaz ziurtatzeko hainbat tresna sailkatzen ditugu:

- Informala: Familia, eskola, lagunak, komunikabideak ... Gure gizarteratze momentuko lehenengo kontaktuak dira. Gizartean izan behar dugun portaera barnebiltzen dugu. Betetzen ez dugunean bazterketa edo zigor sozial txikia beteko duzu.
- Formala: Zigor penala, zuzenbide zibila, zuzenbide administratiboa, polizia, kartzela ... Aurretik ikusi ditugun tresnak kale egiten dutenean eta kalte sozial larria sortu bada hauek martxan jartzen dira.

ZUZENBIDE PRIBATUA

Pertsona pribatuen arteko harremanak arautzen ditu, haien interesak ere. Denak maila berdinean daude.

- Zuzenbide zibila
- Merkataritza zuzenbidea
- Lan zuzenbidea
- Nazioarteko zuzenbide pribatua

1

Zigor zuzenbidea: Tresna eta zuzenbide guztien artean formalena da, dena guztiz zehaztuta agertzen zaigu. Ordenamendu juridikoan, zigor gogorrenak ditu, horregatik legean dena zehatz mehats agertzea eskatzen digu. “Portaera larrienak, irtenbide larrienak”.

Mehatxu teknika eta errepresioa erabiltzen ditu, printzipioak zorrotasun gehiago baitauka. Delituak deitzen diren ekintzak definitzeko eta halako bat burutuz gero, ekintza hori egitea izango lukeen zigorra ezartzeko eta arautzeko. Legea ez dena ez da aplikatzen, delitua arautua ez badago ez da delitua.

Administrazio zuzenbidean, gehienbat isuna edo administrazio zigorra ezarri daiteke, ekintzak ez direlako hain larriak.

Zuzenbide penalaren zabalera mugatua: hiritarrok berme.

Tresna oso formalizatua da. Baldintza guztiak herriko ordezkariak adosten dituzte.

LEGEZKOTASUN HASTAPENA: (Legea = Bermea). Zuzenbide penala sartzen den guztietan, portaera bat delitu gisa ezartzen da. Aurretik legean modu zehatzean agertuko zaigu portaera, jarraitu beharreko prozesua eta zigorra ezartzeko modua.

Ordenamendu juridikoa

Lege organikoak: Parlamentuan, herritarren ordezkariak egiten dituzte, gehiengo absolutu batekin. Lege organikoak oinarritzko eskubideak arautzen dituzte.

Lege arruntak: Parlamentuan, gehiengo sinplean, zuzenbide penala ez da inoiz hauekin aldatu edo zehaztuko.

Jurisprudentzia: Beste epaileek utzitako aurrekariak. Beste sententziak.

KONTROL TRESNA GISA DAUZKAN EZAUGARRIAK ETA ONDORIOAK:

Faltak: Gaur egun aldatu den kontzeptua, desagertu da. Kode penalaren erreforma berriarekin, falta asko administrazio zuzenbidearen parte izatera pasa dira, isun handiagoak ordainduz. Gainera administrazioak beti arrazoia daukala onartzen da, “inozentzia presuntzio” hori galduz. Polizia baten hitza, hiritarrena baino gehiago balio du.

Gaur egun, zigor zuzenbidean hiru delitu mota sailkatzen ditugu:

DELITU ARINAK / DELITU EZ HAIN LARRIAK / DELITU LARRIAK

Beste kontrol-sistema formalizatuak: ZUZENBIDE ADMINISTRATIBOA

Elementuak:

- Arau-multzoa: Ez dira lege organikoak izan behar. - Ondorio juridikoak: Teorikoki larritasun gutxiago. - Zigorra: Bestean epaileek ematen dute, hemen funtzionarioek.

Boterearen deszentralizazioa, hiru independentetan, haien arteko kontrol bat ezartzen du. Botere judiziala besteen gainetik dago.

Botere legegilea: Legeak egin eta onartu. Parlamentuan, gobernuak kontrolatzen du.

Botere exekutiboa: Onartutako legeak betearazi. Bi erakundez osatuta, gobernu eta administrazioa, politikoa eta publikoa. Bigarrena, lehenengoaren menpe dago.

Botere judiziala: Independentea da, karrera judiziala aurrera eramane duten herritarrak, epaile eta magistratuak egiten dute. Auzitegien esku.

Konparazioak:

- Zuzenbide penala → pena, prozesu penal baten barne, epaileak eta auzitegiak. - Zuzenbide administratiboa → ondorio juridikoak, prozesu administratiboa, funtzionarioak.

Zuzenbide penalaren kontzeptuak

- Ultima ratio: Beste biderik ez dagoenean eta kaltea oso larria denean sartuko da zuzenbide penalean. Ondasun juridikoaren eta ordenamendu juridikoaren aurka daudenak hain zuzen.
- Subsidiotasuna: Azkeneko errekurtsoa izango da. Gizarte kontrol tresna asko daude zigor formalean sartuz, beste zatiek eskubide pribatuak gehiago errespetatzen dituztela esan genezake. Beraz beste modu bat badago ondasun juridiko bat babesteko, zuzenbide penala ez da sartuko.

Ondasun juridikoak: Elkarbizitzarako beharrezkoak diren ondasunak. Bizitza, osotasun fisikoa, propietatea ... Juridikoak dira, zuzenbideak babesten dituelako.

1.2. ZUZENBIDE PENALAREN 1. DEFINIZIO (“OBJEKTIBOA”) ETA

ELEMENTUAK

Von Lizsten definizioa ekarri dugu hona: “Zuzenbide Penala juridikoez osatuta dago, zeinek krimena -egitate bezala -penaren- bidezko ondorio gisa lotzen baitute”. Definizio honetan hiru elementu topatzen ditugu:

- Arau - juridikoak - Delitu - Pena

Baina definizio honetan beste elementu batzuk ere falta direla sumatzen dugu.

ADIB: Eskizofrenia gaixo bat, episodio bat jasaten duenean eta horretan pertsona bat erailtzekotan, bere gogamenaz kanpo dagoela interpretatzen dugu eta horregatik, ondorioa desberdina izango da.

Pertsona bat bere kontroletik kanpo dagoenean erruduntasuna kentzen zaio, eta ez zaio zigorra ezarriko, ekintza kontrolpetik kanpo egin duelako. Kasu horretan pertsona jasango duen ondorioa segurtasun neurri bat izango da. Gainera segurtasun neurri hori pertsona arriskutsua dela interpretatzen bada bakarrik ezarriko zaio. Arriskutsua ez bada eta kontroletik kanpo, ulermen gaitasun gabe zegoen momentu baten egin duela frogatzen bada ez dauka zentzurik pertsona hori zigortzea edo segurtasun neurri bat ezartzea.

Horretaz gainera zuzenbide penalaren hartzailleak nor diren ere esatea falta zaigu, nori zuzenduta dagoen hain zuzen:

- Hiritarrak: Arau - juridiko hauek ezagutu behar dituzte delituak egitea saihesteko.
- Epailleak: Arau - juridiko hauek erregelak ezartzeko erabiliko dituzte. Aplikazioa zelan egin behar duten.

Zigor penala ulertzeko azkeneko puntua, hastapen eta baloreak izango dira, zigor kodetik eta estatu eredutik irteten direnak. Beraz Von Lizstenean definizioari aipatu ditugun ñabardurak falta zaizkio, definizioa egokia izateko.

Zigor penala bi modutan uler daiteke:

- Objektiboa: Arau-multzo bat da.
- Subjektibotasuna: Ius Puniendi. Estatuak zigortzeko duen botereari dagokiona. Jendea, ezin du justizia bere eskuz hartu. Kalte edo delitu baten biktima izatean, ezin diozu kontrari erasotzailerik zigorra ezarri. Zigortzeko gaitasuna ez baitago hiritarren esku, hori Estatuaren eskumena da bakarrik. “Realización arbitraria del propio derecho”.

Momentuko erasoan, zure burua defendatzeko erasotzen baduzu ordea, eta arriskua erreala bada lege-bidezko defentsa erabiltzeko eskubidea daukazu.

Zigor penaleko elementuak izango dira:

- Delituak: Hiritarrak saihestu behar dituzte.

➤ Kontzeptu formala: Arau-multzoa. ➤ Kontzeptu materiala: Ondasun juridikoak, elkarbizitzarako oinarrizkoak direnak, kaltetzen dituzten portaerak dira. Baina zuzenbide penalean, bakarrik ekintza oso larriak ikusten ditugu. - Zigorrak:

➤ Oinarrizkoa: Pena, zuzenbide penalarik eskusiboa, besteetan

beste izen bat dauka. ➤ Pena: Legezko mehatxu bat, erreakzio bat, gaitza. - Segurtasun neurriak:

➤ Arau - juridikoak.

1.3. ZUZENBIDE PENALA “SISTEMA PENALAREN” BAITAN

Dogmatiko edo zuzenbide penalaren zientzia

Lege penala nola ezarrita dagoen, hau da kodeak aztertuko ditu. Legea izango da modu puruan. Legeen deskribapena aztertzen du, teknikoki egokia dela ziurtatzeko.

Kriminologia

Gizarte zientzien barruan kokatzen da eta egoera soziala zein den ere aztertzen du.

Biktimologia

Aurrekoaren antzekoa. Gizarte zientzien tresnak erabiltzen ditu, baina biktimaren paperari erreparatzen zaio.

Krimen arloko politika

Estatu eredu konkretu batean helburuak betetzen dituen lege penala aztertzen du. Estatu totalitarioan delituak desagerraraztea izango zuen helburu, estatu demokratikoan kriminalitatea ahal den gehiago murriztea izango zen.

Zuzenbide penala eta prozesala

Materiala, arauak zelan eramaten diren epaitegietara. Nola gauzatzen den prozesua.

1.4. LEGERIA PENALA

Delituak zigor kodean daude baina beste delitu batzuk beste toki batzuetan agertzen dira. Zigor kodea 1995koa da.

Erreformatik, zigor kodean ematen direnean automatikoki agertzen dira. Egin zenetik 20 erreforma inguru eman dira.

- Genero indarkeriaren aurkako legea (2004/1)
 - Adingabeen lege organikoa (5/2000 eta 8/2006) - Aire nabigazioari buruzkoa (1964) - Diru-trukeari buruzkoa (1979) - Kontrabandoari buruzkoa (1995) - Erlazionatutako beste lege batzuk (ELOO adb)

1.5. ZUZENBIDE PENALAREN FUNTZIOA ETA PRINTZIPIOAK ESTATU

SOZIAL, DEMOKRATIKO ETA ZUZENBIDEZKOAN:

Estatu eredu desberdinen arabera zigorrak ere desberdinak izango dira. Ez da berdina historian zehar ikusi ditugun Estatu totalitarioen portaeren zigorrak edo gaur egun ezartzen direnak oso desberdinak dira.

FUNTZIOA

Zuzenbide Penalaren kasuan: Ondasun juridikoen babesa da funtzioa. Baina ondasun juridiko horiek desberdinak izango dira estatu ereduaren arabera lehen aipatu dugunez.

- Ondasun juridikoaren definizioa.
- Babesa selektiboa eta zatikakoa da. Garrantzitsuenak babesten dira oinarrizkoak direnak, eraso edo arrisku larrienengatik.

Zigorraren kasuan:

- Teoria absolutuak: Retribuzioa edo ordainketa. Zigorra ezarri behar zaio delitua egin delako. Zuk zerbait egin duzu eta ondorioak bai ala bai ezarri behar dira. Mendeku puntu bat agertzen da.
- Teoria erlatiboak: Gaur egun batez ere ikusten duguna, aurrezaintza egitea du helburu. Delitu hori berriz ere ez egiteko eta hori egitea saihesteko.
 - Aurrezaintza orokorra: Gizarteari orokorrean zuzenduta edo ezarrita dagoena. Hau da, zerbait egin baino lehen gizarteak badaki ondori bat dagoela zigor kodean agertuko dena normalean. ➤ Aurrezaintza berezia: Zigor bat ezartzen dugu pertsona konkretu batentzat, delitugileak portaera hori berriz ere ez errepikatzeko.

- Legea sortzen den momentuan aurrezaintza orokorrean aplikatzen da,

portaera zehatz hori saihesteko. - Epaileak zigorra ezartzen duenean hiru teoriak barnebiltzen dira. - Bukatzeko, pertsona behin kartzelan egonda aurrezaintza berezia izatera

pasako da, epaitutako pertsonari bakarrik aplikatuko baitzaio.

Kode penalaren erreformarekin, bizitza osorako kartzela zigorra itzuli da, errebisagarria dena. Urte minimo bat beteko da eta gero horiek beteta berrikusiko da kasua kaleratu edo ez kaleratu daitekeen.

1.5.1. LEGEZKOTASUN PRINTZPIOA.

SARRERA

Espainiako estatua, Estatu Sozial demokratiko eta zuzenbidezkoa bezala definitzen da. Azkeneko honegatik zuzenbide penalari dagokionez ohituran ezin gara oinarritu, esan bezala herritarrek aukeratutako ordezkariak ezartzen dute legea parlamentuan. Idatziz egin behar da, lege penalak parlamentuak ezartzen du, Konstituzioan agertzen den bezala eta printzipio batzuei jarraiki. Taxatibitatea egon behar da, interpretaziorik lekurik ez usteko, epaileak printzipio hauek hartuko ditu kontuan.

LEGEZKOTASUN HASTAPENA.

Zuzenbide penal guztia legean dago eta hori da hain zuzen hiritarrok daukagun garantzia. Modu berdinean hiritarrok legeak ezagutzearen betebeharra daukagu, zer den zilegi eta zer ez eta hori ez betetzekotan ondorioak zeintzuk diren ezagutzeko beharra ere.

“Nullum crimen, nulla poena sine lege” → Ez dago deliturik ez zigorrik, aurreko legerik ez badago. Hau da ezin da ohitura jarraitu, idatzi modu zehatzean agertu behar da, lege organiko baten bitartez. Legeak gainera ondasun juridikoak babestu behar ditu beraz horietako bat kaltetzen ez badu modu larrian ez da delitua izango.

Berme hau izatea, zuzenbide estatuaren ondorio da beraz. Horren funtzio edo zentzua segurtasun eta berme politikoa izatea izango da. Lau berme bereizten ditugu:

- Berme kriminala: Aldez aurretik portaera edo delituak zeintzuk diren jakingo dugu.
- Berme penala: Aldez aurretik zigorra egongo da ezarrita.
- Berme judiziala: Zigor hori nola ezartzen den, ze epaitegiren aurrean eta zer prozesuri jarraiki joango den zehaztuko da aldez aurretik, nola egingo den prozesua hain zuzen.

- Betearazle fasearen bermea: Nola betearazten den askatasunaren murriztatzailea den zigor hori. Espetxearen funtzionamendua, hor barruan dauden betebeharrak eta eskubideak zeintzuk diren zehaztuko da besteak beste.

LEGEAREN EZAUGARRIAK

- Lex praevia. Atzera eraginaren debekua. Ez da posible lehendik egindako delitu bati zigor egin eta gero, hau da geroago egin den lege bat aplikatzea.
- Scripta. Ohitura ez du balio, legea idatziz egongo da eta lege organiko baten bitartez zehaztuko da.
- Stricta. Legearen deskribapena ahalik eta zehatzen idatziko dira, interpretazioari lekuri ez usteko. Analogiaren debekua ere agertzen zaigu (ZK 4 art.). Antzekoa den kasu bati ezin zaio aplikatu, portaera ez bada espresuki deskribatzen ezin da zigortu. Delitugilearen eskubideak urratzen dituenetan ezin da aplikatu, hau da ez zaio zigorrik ezarriko. Reo= Errudunarentzat onuragarria baldin bada ordea, analogia aplikatu daiteke.

1.5.2. ESKU HARTZE PENALAREN ONURA PRINTZIPIOA.

Zigor penala gizarte kontrol tresna oso kaltegarria denez, babeserako efikazia izan behar du. Kaltetzen dituen oinarrizko eskubideak oso larriak direnez, babes efikazia hori betetzen ez badu zuzenbide penala ez da sartuko. Honen adibide dugu, 15 urte baino gehiagoko zigorrak edo 6 hilabetekoak baino laburragoak direnak birgizarteratzeko ez egokiak direnez eraginkortasuna ez dute beteko. Ez dute haien funtzioa modu egokian betetzen eta ez aplikatuko. Hori modu teorikoan esaten da, baina gaur egun horren atzetik onura politikoak daudenez ez da betetzen. Azaldu behar da, lege batekin zer bilatzen den, zer helburu dauden. Baina askotan partidu politikoen helburuak desberdinak direnez, legislaturen arabera aldatzen dira.

Zigorra eragingarria ez bada ez da zilegi, ez badu bere funtzioa betetzen ez da aplikatuko.

Kontrako argudioa

- Berrerortzearen tasak (ez dira oso altuak)
- Delitu larri batzuetan ez da efikazia (betirako kartzela zigor errebiziblea)

Aldeko argudioa

- Delitua egiten ez dutenen ikuspuntua
- Eskarmentu historikoa. Zigorrak ikusita, gero eta delitu larri gutxiago ikusten ditugu. (delitu tasa jaitsi da urteetan zehar jarritako zigorren eraginez)

1.5.2.1. PREMIAZKOTASUN PRINTZIOIA

Printzipio honek gizarte babesaren bilatzen du eta hori ondasun juridikoen babesaren bitartez lortzen du. Baina ezin du edozein erasori aurre egin, eraso bortitzenen aurrean sartuko da. Horretaz gainera beste gizarterako kontrol tresnen aurrean subsidiariorotasuna jarraituko du, bigarren momentuan aplikatzen den zerbait izango da. Saiatu behar gara konponbideak lortzen beste tresnen bitartez, zuzenbide bitarteko beste tresnak erabiliko ditugu lehenengo eta efikaza ez bada zigor zuzenbidea sartuko da bakarrik.

“Ultima ratori” jarraiki ere eraso larrienen aurrean ondasun juridiko garrantzitsuenetan eta kalte larriak ezartzen denean bakarrik sartuko da.

1.5.3. ONDASUN JURIDIKOEN BABESA ESCLUSIBOAREN PRINTZIOIA

Gizartea kontrolatzeko tresna daukagu. Tipikoak diren egitateei aurre egitea du helburu. Zuzenbide penala beraz, ez da sartuko ondasun juridiko bat kaltetzen ez bada. Eta hemen “ultima ratori” jarraiki ere, bizi-elkarterako beharrezkoak diren ondasun juridiko baten aurkako eraso larri bat izan behar da.

1.5.4. ZIGORREN GIZATASUN PRINTZIOIA (GERO ETA GUTXIAGO

ERRESPETATZEN DA)

Tratu eta zigor apalesgarriak eta gizakiaren aurkakoak debekatuta daude. (KE 15. Art). Duintasun urratzen duten zigorrak ezin dira erabili printzipioz. Beraz zigorra gertatzen den bitartean ezin dira aplikatu:

- Pairamenak eta beherapena. Minak eta umilazioak.
- Heriotza zigorra debekatuta dago.
- Gizatasun printzipioari jarraiki, espetxealdiko zigorren egikaritzea presoentzako duintasuna eta oinarrizko eskubideak bete behar ditu.
- Birgizarteratzea bete behar du, gizartetik kanpo ezin da utzi pertsona. Espetxealdiko denbora hori gizartera modu “egokian” bueltatzeko aprobetxatu behar da.
- Ordezkapena, urtebeteko baino gutxiagokoak diren zigorrak, isunak, gizartearentzako lanak etab. ez dira beteko. Etetea, denbora zehatz batean zigorra ez betetzea. Hauek aurrerago ikusiko ditugu modu garatuago batean.

1.5.5. ERRUDUNTASUN PRINTZIOIA ETA EGOZPEN PERTSONALA

Frogatu behar da, pertsona baten portaera bat leporagarria dela. Nahita egin den portaera izan behar da, adibide bezala zu norbaiti orkatila apurtzen diozu eta anbulantzian doala beste istripu bat du eta hiltzen da, zu ez zenekien bidai horretan hilko zenik, beraz ezin zaizu erru hori leporatu.

Zigorrek pertsonalak izango dira, norbaitek zerbait egiten badu, berari bakarrik zigortuko zaio. Ezin bada erantzulea aurkitu, familia edo bere ingurukoak ezin dira zigortu edo erantzule egin.

Egiteagatiko erantzukizuna dago, printzipioz pentsamenduak edo pertsonak ezin dira zigortu, ekintza konkretuak zigortzen dira. Ideologia zehatz batzuk izateagatik ez da ezer gertatzen edo delitu bat egin nahi dudala pentsatzea ez da zigorgarria. Pentsamendu bat badaukat delitua dena, eta beste bati esaten badiot hori egitera inzitatzeko zigorgarria da. Zigortzeko delitua hasi edo aurreratu egin behar da. Beraz delituak konkretuki zigortzen dira.

Dolua (zerbait nahita edo intentzioarekin egitea) edo kulpa (inprudentzia=arduragabekeria). Hau da, delitua egin daiteke nahi izan duelako edo nahigabe eginda ere, kontuz ibili beharko zen egoera batean delitu bat egin badu eta adi ez bada egon, ere leporagarria izango da. Portaera idatzita badago, kodeak horrela aurreikusten badu, portaera hori nahi gabe eginda ere delitu bihurtuko da.

1.5.6. PROPORZIONALTASUN ETA BIRGIZARTERATZE PRINTZIOIA

Proporzionaltasunaren hastapena

Egitearen larritasunaren arabera izango da zigorra beraz proporzionala izango da. Portaera larritasunaren arabera delitua -astuna; e hain astuna; arina- izango da. (ez da berdina norbait hiltzea edo hiltzen saiatzea eta ez lortzea, zigorra proporzionaltasuna gordez, delitua kasu batean edo bestean ez da berdina beraz ezarriko den zigorra ere ez da berdina izango).

Proporzionaltasuna legegileari eta epaileari zuzenduta dago beraien interpretazioen arabera eta legea dioen tartetan ezarriko da zigorra.

Birgizarteratze hastapena

Zigorren helburu praktikoa: Hastapen honetan funtsezkoena da zigorrak, hau da, delitugileak etorkizunean deliturik egin ez izatea.

Zigorren helburu teorikoa:

Legerian: Aurrezaintza orokorra (legeen bidezko mehatxua)

Zigorra zehazterakoan: Zigorren helburua (aurrezaintza orokorra) + erruduntasuna (aurrezaintza berezia)

Zigorra betetzerakoan: Aurrezaintza berezia

Askatasun-gabetzailea zigorren helburu zehatza: Izango genuen adibidez espetxea edo jarraipen kasuak eta gero birgizarteratzea bereizten dugu.

Kartzela zigorra zilegi izateko hurrengo osagaiak izan behar ditu:

- Egitateen eta erruduntasunaren proportzionaltasuna.
- Birgizarteratze printzipioak baztertu, betiko kartzela zigorrek ez dute betetzen.
- Epe horretan indibiduala den tratamendua jarraitu behar da birgizarteratzeko (preso epaituen kasuan, epailearen zain da denak ez).

Espetxeen Lege Organiko Orokorra 1.Art. (1/1979ko Lege Organikoan, Irailaren 26koa).

1901 1996koa, Espetxe Erregelamendua, otsailaren 9koa.

Birgizarteratzeko helburua lortzeko tratamendu indibidualizatua egin behar zaio. Aurreuposamendu bat, pertsonalitate-balorazioa. Horren helburua, presoaren jarduera aldatzea izango da.

2. GAIA. IRAKASGAIA ZUZENBIDE PENALAREN ZATI

OROKORRA (I): DELITUAREN TEORIA

2.1. DELITUAREN DEFINIZIOA DOGMATIKOA.

Egintza bat delitu bat izateko delituaren teorian agertzen diren filtro guztiak pasatu behar ditu. Orokorrean delituaren teoriak hurrengo hauek esango ditu:

- Kode penalean deskribatuta dagoen portaera bat betetzea, aurreikusita dagoen portaera tipiko bat.
- Zuzenbide kontrakoa. Portaera tipiko guztiak, ez dira beti zuzenbidearen kontrakoak, hilketa bat defentsa propioan egin dezakezu
- Erruduntasuna. Ulermen gaitasunak ongi egotea. Kontzientzia nahikoa ez dagoela interpretatzen bada, pena kendu edo murriztuko da.
- Zigorgarria.
- Egiletza, ze nolako portaera izan duen pertsona bakoitza delituari begira, laguntzailea edo egilea.
- Proportzionaltasuna. 'Iter kriminisa', delituaren bidea, jarraitzen den ibilbidea, eta horretan zer puntutan dagoen arabera zigor desberdinak dira. Ea pentsamenduan geratu den, saiakera bat den edo delitua eginda badago.

Pentsamendua Saiakera Delitua

Portaera Tipikoa Zuzenbidearen kontrakoa Erruduna

Zigorgarria

Pausu guztiak bete behar dira, delitua izateko. Pausu bat egiten ez bada ezin gara hurrengora pasatu. Orain ordenan ikusiko ditugu:

2.2. PORTAERA ETA PORTAERA BAZTERTZEN DUTEN KAUSAK.

Lehenengo portaera aztertzen da zentzu batekin. Zuzenbidean ekintzak eta portaerak bereizten dira, ekintzak orokorrean dira eta portaerak zuzenbidezko helburua dute. Helburuzko portaera bat izatea pertsonenak, nahitaezkoak eta kanpokoak izan behar dira, burutik pasatu behar izan da ez da mugimendu erreflexu bat izango bakarrik. Beraz zuzenbide penaletik hiru kasu geratzen diren kanpo:

1.- Indar jarkiezin (fuerza irresistible). Pertsona tresna bihurtzen denean, kanpoko indar fisiko batek bultzatzen duelako ekintza egitera. Bere burutik ez da pasatu, naturako mugimendua da, eta ez du portaera kontrolatu. Portaera baztertzeke indar fisikoa izan behar da.

2.- Higidura erreflexua. Zure gorputza kontrolatu gabe, mugimendu erreflexu bat egiten

duzunean, ez da burutik pasatzen. Epilepsia atake bat adibidez, ekintza bat dago baina mugimendua egiteko momentua ez da boluntarioa izan, kontrolik gabe izan da.

3.- Kontzientzia eza-ko kasuak. Batez ere sartzen dira, lotan egotea, hipnosi kasu batzuetan eta mozkorraldi letargikoa.

‘Actio libera in causa’ erruduntasuna bazterten den kausetan aplikatzen da, azkeneko momentuko ekintza nahigabea izanda ere, lehenengo ekintza nahita eginda dagoela frogatzen bada, modu berdinean zigortuko da. Adibide bezala pertsona bat hilketa bat egiteko mozkortzen da, badakielako horrekin pena gutxiagoa izango duela. Lehenengo portaera librea da edatearena eta nahita egin du, beraz zuzenbide penalean portaera egotea lortzen dugu. Portaera eta erruduntasuna sartzen dira kasu honetan. Aurreko hiru kausa guztietan aplikatu daitezke, horiek deuseztatzeko hori frogatzen bada.

Zigor kodeak bi liburu ditu, lehenengoan arau orokorrak agertzen dira eta bigarrean delituak. Delitu bat hori dela jakiteko orokorrean delituaren teorian eskatzen dena bete behar dute, eta gero delitu bakoitzak konkretuki beste eskakizunak izango ditu.

2.3. TIPIKOTASUNA: DOLOZKO TIPOA, ZUHURTZIAGAKERIA ETA EZ - EGITEA.

Portaera bat kodean deskribatuta egon behar da zehazki. Portaera berdina, erloju bat hartzearen adibidea, nahigabe, bihar itzultzeko edo berarekin geratzeko bada bakarrik azkenengoan izango da zigortua, beste guztiak ez baitute kode penaleko zigorra deskribatzen zehazki. Tipikotasunaren zerbait falta dela uste badugu

10. Artikulua. Dolua beti agertzen da, zerbait nahita egitea. Horren barruan bi tipikotasun bereizten ditugu: tipikotasun objektibo, ekintza edo portaera deskribatuak eta beste eskakizun subjektiboak bereiz daitezke, pertsonaren barruan gertatzen dena, intentzioa. (Akzioak edo omisioak egin daitezke).

Alde subjektiboan hurrengoak bereizten ditugu:

- Dolua: Portaera nahita egitea.
- Zuhurtzia-gabekeria: Kulpa. Modu orokorrean ez da zigortzen, bakarrik kodea horrela aurreikusten duenean, eta portaera oso larria denean. Arina bada ez da zigortzen, baina modu zibilean kaltea ordaintzen da.
- Subjektu aktiboa: Egilea.
- Subjektu pasiboa: Biktima

- Objektu materiala: Objektua, delitu materiala. Lapurreta indarkeria erabiltzen bada edo ebasketa, zerbait hartzen denean./Pertsona, kalteak egitea.
- Ondasun juridikoa: Elkarbizitzarako beharrezkoak diren ondasunak zuzenbideak babesten dituenak.
- Portaera motak:
 - o Egitea: Portaera aktiboa, akzio bat burutzea delitua dena, emaitza bat lortzeagatik.
 - o Ez egitea hutsa: Oso arraroa da. Portaera pasiboa, portaera baten omisioa, norbaiti lagundu beharrean ez duzunean egiten ematen da. Zerbait egin behar zenuenean ez duzu egiten.Zerbait arriskutsua ikusten duzunean laguntzeko edo abisatzeko beharra dago. 195. Artikulua.
 - o Ez egitearengatik egitea: (Comisión por omisión). 11. Artikulua. Ez egitea, egitea bezalakoa denean. Guraso bat bere umeari janaririk ez ematea hori labankada bat ematea bezalakoa da, hil egingo dela badakigulako.
 - o Legez edo kontratuz jarduteko betebeharrak zehatz dagoenean.
 - o Ez-egileak arrisku egoera sortu duenean, zuzenbideak babestutako ondasunarentzat, aurreko egite edo ez-egite baten bidez.

2.4.ZUZENBIDEKONTRAKOTASUNA ETA BIDEZKOTZE - KAUSAK:

Batzuetan tipikoak diren portaerak justifikatzeko balio dizkiguten portaerak. Ondasun juridikoak kaltetu al ditugu baina garrantzitsuagoak diren beste batzuk defendatzeagatik. Portaera tipikoa agertzen da, objektiboki eta subjektiboki, deskribatuta agertzen da, baina ez dugu zigorra ezarriko ez delako zuzenbidearen kontrakoa. Zuzenbide kontrakotasuna hainbat portaera baztertuko ditu:

2.4.1. Lege-bidezko defentsa. (20.4 Artikulua)

Erantzukizun kriminaletik salbuetsita daude hurrengo hauek.

Zure eskubidea propioa edo beste baten eskubideak defendatzeko erabili daiteke, ondasun juridiko propioa edo kanpoko hurrengo kasuetan:

- Bidezkoa ez den eraso, pertsonaren kontra doana edo bakoitzaren ondasunen aurka.
- Bidezkoa ez den eraso eragotzi edo horri aurre egiteko erabilia izan den bidearen beharrez, momentuan bertan egin behar da, erasoa bukatu denean defentsa ez da izango. Defentsa gainera proportzionala izan behar da, egin dizuten erasoaren aurrean.

- Defendatzaileak behar besteko zirikatzerik ez egitea, aurretik probokazio bat ez egotea defendatzen dagoen pertsonaz. Bestearen eraso bilatzea.

2.4.2. Beharrizan egoera. (20.5 Artikulua)

Bere edo beste baten aurkako kaltea saihesteko beste pertsona baten ondasun juridikoa kaltetua izango da. Bi ondasun juridiko ditugu eta bat salbatzeko modu bakarra bestea kaltetzea da. Ume bat espaloian doa eta auto bat harrapatuko du, hori ikusita bultzatzen duzu lesio batzuk eginez. Lesioak justifikatuta daude bizitza salbatzeagatik egin duzulako. Proporzionaltasuna. Subjektuak beharrizan egoera ez probokatzea.

- Propioa edo beste batena.
- Bi ondasun juridikoen gatazka: baten salbazioa bestearen kaltetzea. Ondasun juridiko garrantzitsuenak bizitza eta osotasun fisikoa dira.
- Proporzionaltasuna: lortuko den gaitza ez da sakrifikatu dena baino handiagoa izango. (Mal menor)
- Egileak bere burua sakrifikatzeko betebeharririk ez izatea bere ogibide edo kargua dela eta. Profesioak exijitzen dizun zerbait, zure bizitza arrisku oso larrian jartzen ez baduzu. (Sorosle lanean)

2.4.3. Eginbehar baten betetzea eta eskubide baten bidezko egikaritzea. (20.7 Artikulua)

Betebehar batean egotea, profesioaren parte denean, karguagatik justifikatuta daude.

- Zilegia. Legeak edo moralak eragozten edo galarazten ez duena, justifikatuta izatea bere ekintza.
- Beharra. Zerbaiterako nahitaezko den egoera; zerbait nahitaezko gertatzea.
- Proporzionaltasuna. Egoeren arteko erlazio egokitua.

2.5. ERRUDUNTASUNA EDO EGOZPEN PERTSONALA.

Erruduntasuna: Gaitasun psikiko fisikoei loturiko eginkizunak ezin dira

Ulermen gaitasuna baztertu behar da %100an. Ezaugarri pertsonala ezin egotzi: Aldakuntza psikikoa; buru nahaste iragankorra; toxikazio osoa; aldakuntza oharmenean; adingabetasuna; beldur menperaezina.

Erruduntasuna baztertzen duten kausak:

2.5.1. Aldakuntza psikikoa. (20.1 Artikulua)

2.5.2. Buru-nahaste iragankorra. (20.1 Artikulua)

Edozein arazo edo aldakuntza psikikoa, delitua egitearen denbora horretan ez duena ulertzen jarduera edo egintzaren zilegitasun eza. (Arau hauste penalean zilegizkoa ezin duena ulertu).

2.5.3. Toxikazio osoa. (20.2 Artikulua)

Arau ustea penalean guztiz toxikatuta dagoenean,

Hauste konpromisoa momentuan bertan intoxikazio osoa egoera batean dagoenean (edari alkoholdunak, drogak, estupefazienteak, substantzia psicotropikoak edo antzeko efektuak sortzen duten beste substantzien kontsumoaren arabera), betiere egitekoa ez dela bilatzen edo ez gauzatzeko helburuarekin aurreikusi genuen edo espero bere mandatua, edo abstinentsia sindromea eraginpean dagoelako, baita beren substantzia, hala nola, bertan saihesteko ulermen horretan jarduera edo egintzaren zilegitasun eza ulertzearen menpekotasuna.

2.5.4. Aldakuntza oharmenean. (20.3 Artikulua)

Jaiotzetik edo haurtzarotik jasandako hautemate aldaketak, errealitatearen kontzientzia oso larria (aztoratua) eragiten diona.

2.5.5. Debeku errakuntza eta beldur menperaezina. (20.6 Artikulua)

Egiteko delitua, (egitea) bultzatua egotea beldur gaindiezin batengatik.

2.5.6. Adingabetasuna. (19. Artikulua)

Hemezortzi urte baino gutxiago dutenek ez dute erantzukizun kriminalik izango kode honen arabera. Adin hori baino gutxiago duenak delitua gauzatzen duenean, bera izan daiteke erantzule adingabearen erantzukizun penala arautzen duen legearen arabera. Zigorra aplikatuko da (ez penala) segurtasun neurria aplikatuko zaio, baina bere arriskuaren arabera

Adingabetasuna aplikatzeko irizpideak:

- 5/200ko Lege Organikoa, adingabeen erantzukizun penalari buruzkoa (8/2006 Lege Organikoa = Erreforma).
- 14-18 urte bitartekoei zuzendutako gazteei (13 urte baino gutxiago dutenek ez dute erantzukizun penalik izango -zibila-) Ez zaie 13 urtetik beherako gazteei ezer ez aplikatuko.
- Zigor kodearen delitu edo falten aurrean.

- Neurriak: (7. Artikulua)

- o Barnerapen itxia.
- o Barnerapen tarte erdi irekia.
- o Barnerapen irekia.
- o Ibiltari tratamendua.
- o Egunekoa den zentro batera joatea.
- o Asteburuetako egonaldia.
- o Zaintzapeko askatasuna.
- o Beste familia, pertsona edo hezkuntzako talde batetik bizi beharra.
- o Gizartearentzako lanak.
- o Zentzarazpena (amonestación).
- o Gidatzeko baimenaz gabetzea.
- o Erabateko desgaitasuna.

2.6. ZIGORGARRITASUNA. Ondorio juridikoak

Zigor bate ezartzeko bete behar dugun guztia daukagu, aurreko puntuetan oinarrituz

Indultua: Ezarritako pena osoa edo honen zati bat barkatzea dakarren graziazko neurria, estatuburuak bakarrik eman dezakeena. Baita ere ezarritako pena edo penak beste arinago batzuek ordezkatzea.

Immunitatea: Kargu berezia duten pertsonen bere karguagatik ezin zaie epaitu. Hau da, pertsona oro ahaldunen pribilegioa, kreditatuak dauden estatuaren legedi penaletik libre geratzea ahalbidetzen duena.

Delitu erdi publikoak (kalumniak= gezurra esatea beste bateri buruz) horretarako kereila jarri behar da = biktima eskatu egiten du egilea epaitzea. Ez da zigortzen azkenean kasu hauetan eskatzen dena publikoki barkamena eskatzea.

2.7. DELITUAREN GARAPEN - GRADUA:

Legeari zigorturik dagoen ekintza; zentzu hertsian, pena larri batez zigorturik dagoen ekintza eta delitua garatzeko ekintza eta horren ondorioa norabide jakin bat jarraitzen duten aldaketak modu mailakatuan gertatzen direnean (fase desberdinetatik pasa ostean, pasa beharreko pauso hauek delituaren garapena da). Iter criminis terminoa.

Hurrengoak dira delitu garapen graduaren elementuak

2.7.1. Burutzea

Delitu egikaritzeko elementu guztiak bete eta emaitza bat lortzera bidearen eginkizuna.

2.7.2. Prestamen-ekintzak.

Nork bere burua zerbaiteko gertu edo prest jarri eta beharreko baliabidea(k) erabili delitua egikaritzeko.

1.7.2.1. Saiakuntza

Delitua egikaritzeko egitearen ahalegina. Baina kanpo faktoreengatik ez denean egitea burutzen ez da egilea bertan behera ustaren ekintzaren ondorioa.

2 saiakera mota daude.

- Saiakuntza bukatuta: Delitua egikaritzeko beharrezkoak diren elementu guztiak bete, baina emaitzarik ez dagoenean.
- Saiakuntza ez bukatuta: Delitua egikaritzeko beharrezkoak diren elementu guztiak ez direnean betetzen.

2.7.3. Ondorioa

Delitua burutu ostean, ekintza hau dakarrena ondorioa zigorra da.

Saiakuntza

2.8. EGILETZA ETA PARTAIDETZA.

2.8.1 Egileta (28.artikulua)

Zuzena: Delitua egiten duen pertsona bera da. Hau zigortzen da.

Egiletza bitartekoa (induktorea): Beste baten bitartez, hau da, beste pertsona bat tresna bezala erabili ekintza burutzeko (Adi.: Hilketak egiteko, beste pertsona -sikario- bat kontratatzea). Konbentzituena duenari jartzen zaio delitua.

Egilekidetza: Delitua taldean burutze (1- zigilatu, 2- erosi arma, azkena hil)

2.8.2. Partaidetza

Induktorea (28. Artikulua (a)): Zerbait egitera bultzatzen duena beste bati.

Ezinbesteko laguntzailea (28. Artikulua (b)): Laguntzen duena, bereziki norbaiti zerbaitetan laguntzen diona edo zerbaitetarako laguntza ematen diona. Erraztasunak ez dauden momentuan delitua garatu ahal izateko laguntza ematen dizuna.

Sopikuna (29. Artikulua) (Konplizea): Delituaren egile izan gabe, aurretiazko edo une bereko ekintzen bidez delitugintzan parte hartzen duena, konplizea. Desberdintasuna kasu konkretuetan datza.

2.9. DELITUAREN (INGURUABAR) TESTUINGURA ALDARAZLEAK: ARINGARRIAK ETA ASTUNGARRIAK.

Testuinguruaren arabera delituaren ondorioak murriztu edo handitu egiten dituzten elementuak zigorra era batekoa edo bestekoa izango da

2.9.1. Aringarriak (21. Artikulua) ZIGORRA MURRIZTEN DUTE

Salbuesle ez osoa (21.1 Artikulua): Erruduntasuna emateko salbuespen guztiak gertatzen ez direnean.

Toxikazio ez osoa (21.2 Artikulua): Hauste konpromisoa momentuan bertan intoxikazio osoa egoera batean dagoenean (edari alkoholduak, drogak, estupefazianteak, substantzia psicotropikoak edo antzeko efektuak sortzen duten beste substantzien kontsumoaren arabera), betiere egitekoa ez dela bilatzen edo ez gauzatzeko helburuarekin aurreikusi genuen edo espero bere mandatua, edo abstinentzia sindromea eraginpean dagoelako, baita beren substantzia, hala nola, bertan saihesteko ulermen horretan jarduera edo egintzaren zilegitasun eza ulertzearen menpekotasuna, hau **GUZTIZ EMATEN EZ DENEAN**.

Zoroaldia, itsualdia (21.3 Artikulua): Edozein arazo edo aldakuntza psikikoa, delitua egitearen denbora horretan ez duena ulertzen jarduera edo egintzaren zilegitasun eza. (Arau hauste penalean zilegizkoa ezin duena ulertu). **GUZTIZ EMATEN EZ DENEAN**

Aitorpena (21.4 Artikulua): Epailearen edo dagokion eskudun autoritatearen aurrean, egitea (egindakoa) hala dela onartu, hau da, egileari egozten zaion lege-haustearen erantzukizuna eta ondorioak bere gain hartzen duela. Prozesua hasi baino lehen izan behar da bestela ez dago aukera erabiltzeko.

Erreparazioa / Konponketa (21.5 Artikulua): Delituagatik eratorritako / eginiko kalteak edo gaitzen ordaina emate nahian egiten dena (Delituaren egileak salatu, kalte ordainak ordaindu ...). Prozesua hasi baino lehen egin behar da.

Legearen aurkako atzerapena (21.6 Artikulua): Kasu konplexuetan, froga guztiak aztertu ahal izateko denbora izatea.

Antzeko esanahia -beste edozein (21.7 Artikulua): Aurreko puntuez aparte, antzekoa diren delituaren testuinguru aldarazleak erabiltzea zigorra murrizteko.

2.9.2. Astungarriak (22. Arikulua) ZIGORRA HABDITZEN DUTE

Maltzurkeria (22.1 Artikulua): = Alebosia: Biktimaren defendatzeko aukerak guztiz kentzea. Pertsonen kontrako delituetan (hilketa, eraso sexualetan ...)

Alebosia. Egitatea maltzurkeriaz gauzatzea. Maltzurkeria dago errudunak pertsonen aurkako delituetatik edozeinetan, horiek zuzenean edo beren beregi ziurtatzeko asmatu bideak, moduak edo erak erabiltzen baditu , berarentzat arriskurik sor ez dadin ofendituak egiten duen defentsatik. Pertsona inolako defentsarako aukera gabe usten dugunean, erabiltzen dituen moduak, biktimak defendatzetik arriskurik sor ez dadin berarentzat.

Mozorroa, nagusitasun abusuz, leku zein denbora inguruabarrak edo beste pertsona batzuen laguntza aprobetxatuz (22.2 Artikulua): Mozorroa, nagusitasun abusuz, leku -zein denbora inguruabarrak edo beste pertsona batzuen laguntza aprobetxatuz, gauzen zein pertsonen kontrako delituetan. Egitatea gauzatzean horrelakoak ofendituaren defentsa ahuldu edo delitugilearen zigorgabetasuna errazten badute.

Prezio, sari edo hitzmatearen bidez egitatea gauzatzea (22.3 Artikulua):

Arrazakeriaz (22.4 Artikulua): Arrazakeriaz, antisemita edo beste motatako diskriminaziotatik. Delitua egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu, zein sexu joera, gaixotasun edo elbarritasunari buruzkoa bada.

Ankerkeria (22.5 Artikulua): Ensañamiento. Nahita eta bihotz-gogorrez handitzea biktimaren sufrimendua, delitua egiteko behar ez diren pairamenak eraginez.

Konfiantza abusuz aritzea (22.6 Artikulua): Pertsonaren zirkulu afektibo edo ezagunean egotea eta horretaz baliatzea delitua egiteko.

Izaera publikoaz baliatzea (22.7 Artikulua): Kargu publikoak ematen dizun botereaz, jakintzaz, zein tresnetara heltzeko gaitasunez baliatzea delitua egiteko.

Berrerortzea (22.8 Artikulua): Berrerortzea dago, erruduna, delitua egiten duenerako, kondenatua izan bada kode honen titulu berera bildutako delitu baten ondorioz, izaera berekoa, baldin eta delitu hori izaera berekoa bada.

Inguruabar mistoa (23. Art.) Familiako kideak delitu ekonomikoetan abantailak dituzte, baina lesio edo bestelakoetan ez. Erantzukizuna arindu edo astundu ahal du, delituaren izaera, zio eta ondoreen arabera, laidotuta ezkontidea izateak edo antzeko maitasun-harremanaz egonkor loturik dagoen pertsona izateak; edota odol, adopzio zein ezkontza bidezko senidetasuna dela medio, aurreko, ondorengo nahiz neba-arreba izateak, ofentsagilearen gradu berberetan.

2.10. LEGE-PILAKETA ETA DELITU-PILAKETA.

Lege pilaketa (8. Art.) : Kode honen bi manu edo gehiagoren arabera kalifikatu ahal diren egitateak hurrengo erregela hauen arabera zigortuko dira, baldin eta egitate horiek 73. Artikulutik 77. Erakoen barnean ez badaude:

- 1.- Manu orokorraren aurrean, bereziak du aplikatzeko lehentasuna.
- 2.- Manu subsidiarioa manu nagusirik ez dagoenean bakarrik aplikatuko da, bai beren beregi subsidiarioa dela adierazten bada, bai isilbidez subsidiarioa dela ondorioztatu ahal bada.
- 3.- Manu penal zabalenak edo konplexuenak baitaratuko ditu bere baitan irentsitako arau-hausteak zigortzen dituzten manuak.
- 4.- Aurreko irizpiderik ezean, manu penal astunenak baztertuko ditu egitatea zigor arinagoarekin zigortzen duten manuak.

Delitu pilaketa:

- Errealak: (73, 75 eta 76. Art.)
- Ideala: (77. Art.)
- Mediala: (77. Art.)

3. GAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI OROKORRA (II): ZIGORRAK ETA BESTE ONDORIO JURIDIKOAK

3.1. ZIGOR KODEAN DAGOEN ZIGOR-SISTEMA ETA JOERA POLITIKO-KRIMINALA: HASIERAKO HAUSNARKETA.

Zigor kodean dagoen zigor-sistema, zigorra da, ondasun bat kendu, debekatu edo galarazi prozedura baten ondorioz ezarriko dena, lege haustu edo bete ez duenari. (Zigor ondasunen bat kentzea ere izan daiteke)

PENAREN SAILKAPENA

Izaeraren arabekoak (32. Artikulua):

Pertsona baten aktibitatearen eremuari eragiten dion izango da zigorra, bertan hiru desberdinduko ditugu:

- Askatasun gabetzaileak (mugatzaileak): Pertsonen askatasunari eragiten diote, mugimendu askatasunak, guztiz mugatzen dutenak, espetxe barnekoa ez bada [Kartzela aldi iraunkor berrikusgarria; Espetxealdia; Kokaleku iraunkorra (jakinaraztea); Isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun pertsonala] Askatasun gabetzailearen zigorrak (35. Artikuluan)
- Eskubide gabetzaileak -mugatzaileak- (Eskubide batzuk murriztea): Eskubide zehatz bat murrizten dute (gida baimena kentzea).

Inabilitazioaren barnean askatasun mugatzaileak daude eta hauek mugimendu askatasuna partzialki mugatzen dute (nonbaitera joateko askatasuna mugatzea → Estatutik ateratzen ez ustea ...)

- Isuna: Zigor ekonomikoa

Larritasunaren arabekoak (33. Artikulua)

Astunak → Espetxea 5 urtetik gorakoal

Ez hain astunak → Espetxe zigorra 3 hilabetetik 5 urte arte

Arinak → Faltak ez ditu espetxe zigorrik jasotzen

Zigor nagusiak edo erantsiak

(33. Artikuluan) agertzen diren zigor guztiak nagusiak dira.

(34. Artikuluan) agertzen diren zigorrak erantsiak dira. Honek dio inhabilitazio zigorrak direla = zigor erantsiak. Berez zigorra ezarri ez arren, legeak dio, beste lege batzuk aplikatzen direla

Isuna Zigor ekonomikoa da besterik gabe.

3.2. PENA ASKATASUN-GABETZAILEAK:

Mugikortasun askatasuna kentzen zaizu, hau da, espetxeetatik haratago ezin da pertsona mugitu edo egoera zehatz batzuetan ezin da pertsona hori etxetik mugitu.

Bizitza osorako espetxealdia edo (kartzela aldi iraunkor berri ikusgarria),espetxealdia, Kokalekua iraunkorraren jakinarazpena eta isuna ez ordaintzeagatiko erantzukizun pertsonal subsidiarioa

Espetxealdia: Mota larriena da. Gutxieneko iraupena: 3 hilabetekoa (36.1 art) Gehieneko iraupena: 20 urtekoa (salbuespenak, 76. art.) 25,30,40 urte arte luzatu. Espetxealdiko egikaritzaren hasiera:

Presoa egonda: epai kondenatzailea irmo den egunetik

Preso ez egonda: erruduna zigorra betetzeko egokia den establezimenduan sartzen denetik

Askatasunik gabe behin-behinean jasandako denbora kenduko zaio (58. art.)

Bizitza osorako espetxealdi zigorra berraztertugarria: Zigor larriak egitean (33.2.Artikulua) eta Oso larriak diren erailketetan (140. Artikulua)

Erregea edo erregeordezkoaren hilketak edo estatu buru batena, genozidio (607.1), gizateriaren aurkakoak (607.bis), terrorismo heriotzarekin.

25 urte pasa eta gero berraztertua (92/76), eta batzuetan 28,30 35.

Eten 5-10 urte (83ko betebeharrak ezarriz)

Eskakizunak (92.1):

- Denbora
- Hirugarren graduan egotea (36.1 eta 78 bis)
- Birgizarteratua izango den aurreikuspen mesedegarria.
- Terrorismoan: utzi egin dela eta laguntzea

Lokalizazio iraunkorra: 2003. urtean martxan jartzen da / edo errebisioa egiten da. Faltak dira, delitu arinetan kokatzen da.

Asteburuetakoz atzipenaldiaren (arresto de fin de semana) ordeztu, lokalizazio iraunkorra ezartzen da. Gehieneko iraupena: 3 hilabete (33.4→37. Artikulua erreforma). Norberaren etxera mugatzen da mugitu ahal izatearena.

Beste kasu batzuetan: –Dispositibo elektronikoa (37.4. Artikulua) erabiltzen da kontrola egiteko.

Isuna ez ordaintzeagatik sorturiko erantzukizun pertsonal: Pertsona batek ez badu ordaintzen, ez ordaintzeagatik, erantzukizun penala izango du. Aldi berean subsidiarioa da bera ezin badu ordaindu, beste batek ordaintzen badio listo. Bi eguneko kuota (6 eguneko kuota ba 3 egun askatasun gabe)

3.3. ZIGOR ASKATASUN GABETZAILEAK ETETEA ETA ORDEZTEA:

Etetea (80. Art). Horrelako delitu bat egiten duen lehenengo aldia denez hainbat urte uzten zaizkio proba bezala. Zigorra suspentsioan uzten da epailearen erabakiz eta denbora zehatz batean zehar ez baduzu beste ezer egiten zigorra ez da bete behar. Epe horretan delitu bat eginez gero bete behar izango duzu. Horretaz gainera lehen ordeztega egiten zen, kartzelara ez joateko beste zigor mota batzuk ezartzea, gizarterako lanak adibidez eta hori egitean ez zenuen betetzen gero ezin zitzaizun kondena betetzera behartu. Gaur egun etetea bakarrik existitzen da baldintza gehigarriekin.

- 2 urtekoak baino luzeagoak ez izatea. Ez du ezan nahi libratu denik.

- Etendura epea: 2-5 urte (kartzel zigorrentzako) / 3hilabete -1urte (zigor arinentzat)

BALDINTZAK (80.2 art):

o Delituaren lehenengo aldi izatea

- Zuhurtziagabekeriak egiten direnak
- Faltan diren delituak
- Bere ezaugarriak ez badute zerikusirik egindako delituekin

o Bi urte baino luzeagoko zigorrak ez

o Erantzukizun zibila ordainduta izatea.

• Lehen hau automatikoki ematen zen 2 urte baino gutxiagoko zigorretan. Gaur egun gogortu egin da ez da eskubide bat eta bakarrik ematen da, uzten denean hori baliagarria izango dela beste deliturik ez egiteko.

SALBUESPENAK. (80.3, 80.4, 80.5 eta 89). Eteteari hainbat baldintza gehitu ahal zaizkio, adibidez biktimari ez hurbiltzea, isuna ordaindu, gizarterako lanak egin etab. Lehenengo aldia izan bada baldintza hauek ez betetzen ez da zuzenean zigortuko hala ere.

- Hainbat delitu diferenteengatik bi zigor ezartzen badira nahiz eta bi urte horiek gainditu posible izango da hau kentzea barruan dauden delituek bi urte baino gehiagora heltzen ez badira. Ohiko delitugileak ez badira. Delitugilearen, delituaren eta mina konpontzeko gogoengatik salbuetsiko da. Ohiko delitugilea izango da, 5 urteetan kapitulu berdineko hiru delitu ez egitea.
- Gaixotasun larri bat dagoenean, min oso larria eta sendaezina, ez da ezer eskatzen, baldintza bakarra ezartzen zaio. Beste kondena bat baldin badauka eteta delitu berdinagatik ez zaio bigarrenean etetea aplikatuko.
- Sustantzien menpekotasuna daukaten pertsonen, droga toxikoa, alkohola edo edozein zororgarri. Beti ere delitu hori kontsumo horregatik egin bada eta ez da lehen aldia izan behar. Muga bost urtetara igotzen da, beti ere frogatuz gero, menpekotasun hori kendu badu edo tratamendu egiten hasi bada, berrerortzeak ez dira kontuan hartuko.
- Hau edozein atzerritarrei aplikatu ahal zaizkio. Urte bat baino gehiagoko zigorra ezarri gero, ordezkatuak izango dira automatikoki kanporatua izateko. Salbuespen bezala, beharrezkoa baldin bada araua edo zigorra betetzen ziurtatzeko, eta zigorra bost urte baino gehiagokoa izanez gero zati bat Espainian beteko da gehienez 2/3 eta gero kanporatua izango da. Hemen bere bizitza eginda badauka eta kanporatzea oso desproporportionala izanda, autorearen eta delituaren egoera kontuan izanda ez da kanporatuko. Bota eta gero, 5 – 10 urteetan zehar debekatuko zaio itzultzea epailek zehaztutakoaren arabera. Prozedura batean bazaude paperak lortzeko bertan behera geratzen da. Lehenago itzuliz gero, kartzela zigorra berriz ere ezarriko zaio, epailek hori murriztu ahal izango du.

3.4. ISUNA

Zigorra diru kopuru bat ordaintzea izango da. Kode penalak, eguneko multa sistema jarraitzen du 50,2 Artikulua

A. Isun-eguna (50. Artikulua) Bi irizpide jarraitzen ditu:

– Tenporala: Iraupena: egunak, hilabeteak, urteak izango dira, gutxienekoa: 10 egun gehienezkoa: 2 urte Epailearen arabera izango da beti.

– Ekonomikoa: Ordaindu beharreko kuota bat da. (Eguneko, Hilabeteko, Urteko kuota) 2 eta 400€ artean. Delitugilearen egoera ekonomikoaren arabera jarriko da, ez delituaren arabera.

B. Isun proportzionala (33. eta 52. art)

Legian espreski jasota egon behar da, isun mota hau aplikatu ahal izateko.

Isuna 1) kaltearen, 2) delituaren objektuak duen balioaren eta 3) delituak dakarren onuraren arabera izango da

C. Isuna ez betetzearen ondorioa

Isuna ez ordaintzeagatik sorturiko espetxealdiko zigorra (53. Artikulua)

3.5. GIZARTEARENTZAKO LANAK:

Onura publikoa duen doako prestazioa da. Zigorra komunitaterako lanak egitea datza (49. Artikulua) (berria)

– Eskubideen gabetzaile zigorra: soldataren eskubidea galdu

– Epaituaren adostasuna ezinbestekoa:

• Lan bortxatuak debekatuta (K.aren 25.2 Artikulua)

– Bere egikaritzaren hastapenak:

• Espetxe-zaintzarako Epailearen kontrolpean

• Ez duintasunaren aurkakoa

• Administrazioak gizartearentzako lanak hornitu behar = hitzarmenak sinatu

3.6. ESKUBIDEEN GABETZAILE DIREN BESTE ZIGORRAK

Behin- behinekoak edo betikoak izan daitezke.(39. Artikulua). Sailkapena:

DESGAIKUNTZAK (40. art eta hurr.):

Desgaikuntza erabatekoa: Edozein ogibide publikorako, kondenak irauten duten bitartean. Iraupena:6-20 urte

Desgaikuntza berezia: Enplegu konkretuentzako: 1) kargu publiko baterako, ogibide, industria, merkataritzarako. 2) Guraso ahalaz, tutoretza, zaintza, kuradoretza, animaliak izateko. Ezingo dira zaintzaile, guraso ... bezala aritu. 3) 40, 41 eta 42. artikuluak. 4)

Beste batzuk: Enplegu edo kargu publikoko suspentsioa, gida baimena, armak, hainbat lekutara joan edo bizi, biktimara edo beste pertsona batzuetara hurbiltzea edo komunikatzea, gizartearentzako lanak, patriapotestad kentzea ...

3.7. SEGURTASUN-NEURRIAK

Egotzi / Inposatu ezin direnen ondorio juridikoak dira. Ez dira zigorrak baino luzeagoak/larriagoak izango:

- Barneratzea ez da aplikagarria izango, delituari dagokion zigorra espetxealdikoa ez bada (95.2 eta 104 Artikulua)
- Neurriaren iraupena ez da zigorrarena baino luzeagoa izango (101, 102 eta 103 Artikuluak)

Funtsa: Delitugilearen arriskugarritasuna. Sailkapena (96. Artikulua)

- Aipatzekoa: zaintzapeko askatasuna: (98.1 eta 106 art –)
- Bikarriotza sistema: biak (99.art)

3.8. ONDORIO ERANTSIAK:

Komisoa/konfiskatzea (127 Artikulua, Berria): Delituaren irabazien, tresnen edo efektuen galera/pribazioa. Ez da zigorra, erantsitako ondorio juridiko bat baizik.

Baita ere eratorritako ondasun, tresna edo efektuak justifikatu gabe dauden edo delitu baten parte direla frogatu ezin denean ere konfiskatu daitezke, kasu honetan ez daude garantiak ondasuna errespetatzeko.

3.9. ERANTZUKIZUN ZIBILA:

Delitutik eratorritako erantzukizun zibila:

Egindako kalteak (ekonomikoak eta moralak) ordaintzea edo konpontzea da, bestelako ondorio juridikoak dira. Izaera Zibila du nahiz eta kode penalean jasota egon.

Zuzenbide Konparatuan: Izaera zibila du eta prozesu zibila abiaraziko da, eskakizun prozesu berezia da. Zuzenbide zibila da baina jatorri penala du. Gure ordenamendu juridikoan ez dago hain argi zuzenbide penala edo zibila den:

Kode penalean (109,110 eta hurrengo artikuluetan jasotzen da)

Kode zibilan (1092. Artikuluan jasotzen da)

Partaidetzaren araberako kuotak ezarriko dira, guztiak dira errudunak baina maila desberdinetan, beraz zigorra mailakatua izango da.

A- Egile zuzena (1)

B- Egile zuzena (2)

C- Konplizea (1) (Sopikuma)

D- Konplize (2) (Sopikuna)

E- Ezin besteko laguntzailea (ez da egile zuzena baina erantzukizunak ditu)

27

Kasu honetan A, B, E erantzukizun gehiago dute eta beraz zigorra handiagoa edo isuna gehiago ordainduko dute. D eta E ordea gutxiago

Egileak ordaintzen du normalean baina kasu bereziak:

- Aldakuntza psikikoa, buru nahaste iraunkorra eta errealtatearen kontzientzia aldatu egiten denean, haien zaintza daukatenek ordainduko dute (20.1 eta 20.3 Artikuluak)
- Toxikazio duten pertsonak, pertsona berari (toxikatua dagoen pertsona bera) ordainduko du (20.2. Artikulua).
- Beharrian egoera: Gaitza/Kalte jasan ez duenak ordainduko du. Salbatutako ondasunen edo pertsonen, bera edo bere familia izango da ordainduko dituen (20.5. Artikulua).
- Beldur menperaezina : Beldurra sortu duenak (mehatxatu duenak) eta honek ezin badu ordaindu, beldurra eragin duenak edo portaera gauzatu duena izango da/dira ordainduko dutenak (20.6. Artikulua).

3.10. ERANTZUKIZUN KRIMINALA AZKENTZEA / KENTZEA

1. Azkentzea / KENTZEA: Kentzeko kausak: (130. Artikulua)

- Errudunaren heriotza: Erantzukizun pertsonala
- Kondena betetzea
- Zigorra behin betiko kentzea (85.2 art.)
- Indulto: Erregeari dagokion “grazia eskubidea” (K.Eren 62.i Artikulua.)
 - Ofendituaren barkamena: Barkamena, epaia eman baino lehen izan behar da. Kasu gehienetan ez da ematen, zuzenbide penala delitu publikoak epaitzen dituelako, hauetan ez da ematen kasu hau. Delitu gutxi batuk, izaera erdi pribatua dutenean gauzatu daiteke. Kasuak:

1) Bizitza pribatua, egoitza bortzaezintasuna, irudi pribatua. (201.3 Artikulua).

2) Ohore pribatua, Kalumniak (Akusazio faltsuak) edo Norbait iraintzean egitean (215.3 Artikulua)

- Delituaren preskripzio-epea: Epea pasatzen denean, delitua epaitua izan barik. (131. Artikulua)

- Zigorren preskripzio-epea: Epaitu ostean, zigorra betetzeko epea pasatzen denean (133. Artikulua)

3.11. DELITU-AURREKARIAK

Denbora tarte batez aurrekari penalak mantendu egiten dira nahiz eta zigorra kendu, desagertu edo bete.

Erregistratu egiten da “Zigortuen eta Auzi iheslarien Erregistroa Nagusian”

Zigorraren notazioa (Prozedura Kriminalaren Legearen 252 Artikuluan.) kokatuko dugu.

Aurrekari Penalen funtzioa:

- Berrerortzearen astungarria aplikagarri
- Zigorraren etendura edo ekiditea
 - Birgizarteratzean oztopoak ez izateko, Erregistroan egindako notazioa ez da publikoa izango (136.4 Artikulua)

Aurrekari penalen ezereztatzea (136 Artikulua)

Baldintzak: Epe-denbora (136.1 Artikulua) ezartzen da. Zigorra betetzen denetik ezartzen da aurrekari penalaren erregistroa. 136.2 Artikulua

4. GAIA. BETEARAZPENA

4.0. SARRERA

Zigor bat nola betetzen den azaltzen digu. Kartzela zigorrari buruzko irizpideak finkatzen ditu. Presondegi eta betearazpen-zuzenbidea oro har aztertuko dugu atal honetan. Kasu honetan zigor larriena kartzela zigorra litzake eta horri heltzen saiatuko gara.

KONTZEPTUA

Presondegi eta betearazpen-zuzenbidea oro har, zuzenbide penitentziarioa da. Askatasun gabetzaile segurtasun neurrien askatasun-gabetzaile zigorren betearazpena arautzeko arau juridiko multzoa da. Betearazpen zuzenbidearen zati bat.

Kartzela zigorra ez dago betidanik. XIX. mendean Mendebaldean askatasun gabetzaile zigorrek hartutako garrantzia zela ea zientzia penitentziarioa bezala ulertu zen.

Zientzia penitentziarioa, askatasun-gabetzaile zigorrei eta segurtasun neurriei buruzko ezaguera normatiboak eta enpirikoak (soziologikoak, psikologikoak, antropologikoak... Zuzenbide penitentziarioa, zientzia penitentziarioa baino gutxiago da bere barruan dago, murriztuagoa da eta zientzia penitentziarioen eduki normatiboa da.

Lege organiko orokorren bitartez ezartzen dira kartzela zigorrak, askatasun gabetzaileak diren zigorrak ezartzen direlako eta oinarritzko eskubideak direlako. Kritika bezala erregelamenduan gauza asko zehazte dira eta hori ez da egokia gobernuak ezartzen dituelako.

2.- Presondegien egoerari buruzko azterketa kriminologikoa eta estadistikoari dagokionez, kriminalitate tasa igo al da? Azkeneko 20 urteotan kriminalitatea jaitsi da, baina presoen tasa igo da. 1980an 18.583 preso zeuden eta 2009an 76.771 preso egon ziren. Hori zuzenbide penala gogortu delako ematen da. Lehen teorikoki kodea zorrotzagoa zela esaten da zigorrekin, baina gaur egungoa askoz gogorragoa da praktikara eramaten da. Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak emandako arrazoia, erreforma penala 1995ko Zigor kodeak onura penitentziarioak ezabatu ziren, lan egitearena esaterako.

1) 1995ko Zigor kodeak onura penitentziarioak ezabatu dira, beraz pertsona gehiago preso daude. Frankismo garaian (lana egitea zigorra kentzeko) 2) Delitu gehiago indarrean sartu dira, genero indarkeriaren arloan kokatua, falta zena delitu bihurtu da. 3) Bide segurtasunaren aurkako delituen zigorren handitzea ere eman da. 4) Zigorren Betearazpen osoa ezarri da, batez ere terrorismo kasuetan. 5) Askatasun gabetzaile zigorren ordekoak oso gutxitan aplikatzen da.

Horrek espetxeak beteta egotea eragin du, horregatik hainbat neurri sortu dira etorkinak herrialdetik kanporatzea gisa, horiek hain beteta ez egoteko.

Orain badakigu, betiko kartzela dagoela. Baina hori benetan beharrezkoa da? Lehen 40 urteko kartzela zigorra zegoen gehienez. Komunikabideek eman duten irudia dela eta horrek legitimitatea lortu du eta bizitza osoko kartzela zigorra ezarri da. Baina jakin behar dugu alde batetik pertsona bat bere bizitza osoa kartzelan pasatzea ez duela biktimaren bizitza hobetuko. Beste alde batetik sistema penitentiarioaren funtsa bergizarteratzea da, 25.2 artikulua bitartez eta bizitza osoan kartzelan egotea ez du hori eragiten. Gainera jakin behar dugu zuzenbide penalaren helburua ez dela mendekua.

Presoen Tasa jaisteko neurriak:

- Larria ez den delituaren aurrean espetxealdiko zigorrak ez egotea.

- o Ordezkoa

- o Etetea

- o Igotzea alternatiba hauen mugak

- o Behar kriminogenoei erantzutea beste neurri sozialekin, benetako errealitatea aldatzeko.

- Espetxealdiko zigorraren gehieneko muga jaistea

- o Gehieneko muga jaistea o Askatasun baldintzapekoaren sistema erraztea (onartzea betearazpenaren erdialdean) o Betearazpen osoak etorkizunean delituak saihesten ditu? Berez ez,

- o datuen arabera ez.

- Birgizarteratzearen aukerak hobetzea

- o Arazo pertsonalak konpontzen saiatzea o Berrerortze tasa gutxitu

4.1. ESPETXEALDIAREN SORRERA ETA BILAKAERA HISTORIKOA

Espetxealdi zigorraren sorrera XVIII. mendearen amaieran eman zen. Historikoki zigorrak torturan oinarritu izan dira, zigor korporalak. Ilustrazio garaian zigorren humanizazioa ematen da, 1) Guillotina kasua hiltzeko zigorra duinago bat da. 2) Kartzela. Aurretik zigorrak torturak ... ziren. Aurretik kartzelak presoak epaitu baino lehen izateko zeuden soilik. Heriotza zigorra, fisikoak, komunitatetik botatzea ... → Egilea erditik kentzea, azkar eta kostu ekonomiko gutxirekin izateko helburua zuen

LEHENENGO PRESONDEGI SISTEMAK

Zelularra edo pensilbanikoa: Pensilbanian sortu zen. Ziegan isolatuta egunez eta gauez usten zen zigortutako pertsona, ez zeuden bisitarik. Teorikoki meditazioa bultzatzearen helburuarekin. Baina errealitatea ez zen hori izan, jendea zoro bilakatzen zen. Hasieran zereginik gabe pasatzen zuten denbora, gero lana ziegan egiten zuten. Higiene eta elikadura egoera ona zituzten kutsu etiko eta erlijiosoagatik. Diziplina ankerrak ematen ziren.

Auburn sistema

Bizitza komunean ematen zen, egunean zehar tailerretan zeuden baina isiltasun osoa eskatzen zen, ezin zuten hitz, begiratu, imintzioak egin, txistu egin, ... soilik lan egitera bideratuta zegoen. Diziplina ankerra eta ez zen eraginkorra: 1) Kanpoaldearekin kontakturik ez zuten. 2) Hezkuntza elementala eta profesionala eskaintzen zitzaien.

Sistema progresiboa

Zigorraren intentsitatea gutxitu espetxeratuaren portaera eta lanaren arabera.

Fase desberdin daude: isolamendu zelularra, lana elkarrekin eta heziketa, kanpoan aritzeko prestakuntza irteerekin, eta azkenik, baldintzapeko askatasuna.

4.2. ESPAINAKO PRESONDEGI SISTEMA ETA HORREN PRINTZIBIO NAGUSIAK (AZTERKETAKO GALDERA POSIBLEA)

4.2.1. ESPAINAKO PRESONDEGI SISTEMA

Indibidualizazio zientifikoa sistema moduan hartzen du.

Espetxealdiko Lege Organiko Orokorra (72.1. Artikulua) → indibidualizazio zientifikoa → Hiru gradu desberdin daude epaituentzat, betetzen den espetxeguneren arabera, baina sistema progresiboa da.

- 1. Gradua → Erregimen itxiko establezimenduetan betetzen edo ematen da. Oso arriskutsuak diren edo beste erregimenera ohitzeko zailtasunak dituzten pertsonak bertan egongo dira. Ez da derrigorrezkoa 1. Gradutik pasatzea.
- 2. Gradua edo Ohikoa Gradua → Ohiko erregimenera establezimenduak, ohiko elkarbizitza penitentziarioak ezaugarri pertsonalak eta penitentziarioak (ezin dira edozein gradutan, salbuespenekin) Preso gehienak daude gradu honetan.
- 3. Gradua → Erregimen irekiko establezimenduetan beteko da, semi askatasunean (lana kanpoan), egoera penitentziarioa eta pertsonala erdi

askatasunean bizitzeko gaitasuna ematen dionean. Gutxienez 15 urte beteta eduki behar duzu bizitza zigorreko epaian. *SALBUESPENAK (Zigor Kodeko 36. Artikulua eta Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 72. Artikulua)*

- 4. Gradua → Azken gradua zaintzapeko askatasuna da, baina gaur egun ez dago, etena ematen delako. Hasieran edozein gradutan laugarrenean baldintzapeko askatasuna izan ezik 3/4 beteta.

*SALBUESPENAK (Zigor Kodeko 36. Artikulua eta Espetxeen Lege Organiko Orokorreko 72. Artikulua)

– Baldintzapeko askatasuna (lehen 4. Gradua zena) → Zigor Kodea baldintzak betetzen dituztenak (90- 93) → 25 urte zigorra beteta izatea, 3. Gradutik pasa behar da derrigorrez. Gaur egun etendura ematen da. Edozein gradutan hasi zaitezke (1., 2. Edo 3. Gradutik) baina behi graduren batean zaudenean graduaketa jarraitu behar da.

- Hasieran edozein gradutan laugarrenean (baldintzapeko askatasuna) izan ezik : 3/4 beteta

-hasierako klasifikazioaren baldintzak:

-inguruabar pertsonalak, familiakoak, eta bestelako auresuposamenduak

-Zigorra/segurtasun neurrien iraupena

-presoaren gaitasun ekonomikoa

(Espetxealdiko Lege Organiko Orokorren 63. Artikulua.)

- Aurreko baldintzak bete izanda formakuntza eta lan saioak bete ezker 2/3 kondena beteta izatean eskatu dezakezu baldintzapeko askatasuna.

Lehenengo kartzela zigorra 3 urte baino gutxiago izatea eta erdia beteta izatea

Hasierako klasifikazioaren baldintzak:

1) Testuinguru pertsonalak, familiakoak, eta bestelako urresuposamenduak.

2) Zigorra/segurtasun neurrien iraupena

3) Presoaren gaitasun ekonomikoa (ELOO-ren 63 art.)

4.2.2. BETEARAZPEN PRINTZIPIO NAGUSIAK

Oinarrizko legean kokatuta dagoenez hurrengo printzipioak beteko dira era zuzenean

• *Legezketasun hastapena:*

Legezketasun hastapena = “nulum crimen, nulla poena sine lege”(Feuerbach) Ez dago zigorra baldin eta ez badago lege bat ekintza hori zigortzen duena.

Legezketasun hastapena zentzu modernoan:

» “Lus puniendi”-ren muga (estatuak zigortzeko duen eskubidea), estatuak duen eskubidea legezketasun eskubidearen bitartez mugatuko da.

» Legezketasun hastapena - lege positiboa: 1978ko Konstituzioan (25.1. Artikulua.) eta Zigor Kodeko 1.art.

• *Birgizarteratze printzipioa:*

Delitugileak etorkizunean delituak ez burutzea da Zigorren helburu praktikoa

Zigorren helburu teorikoak:

» Legerian: aurrezaintza orokorra (legezko mehatxua), ezarriko dituen delituan berriz ez gertatzeko

» Zigorra zehazterakoan: 1) Aurrezaintza Orokorra zigortzeko helburua zehazten digu + 2) Aurrezaintza Berezia Zigorren Erruduntasuna eta iraupena zehazteko ... balio digu

» Zigorra betetzerakoan: Aurrezaintza Berezia kontuan hartuko dugu soilik

Askatasun-gabetzaile zigorren helburu zehatza ditu: 1) Kartzelan dauden pertsonak Birgizarteratzea (K.E. 25.2. Artikulua.) 2)Espetxeen Lege Organiko Orokorra (1.Artikulua.) Instituzio

Penitentziarioen helburuak: Birgizarteratzea 2) Presoen eta atxilotuen zaintza 3) presoen eta askatuen giza-laguntza

Askatasun-gabetzaile zigorraren betearazpenaren helburua mendekua izateak:

» Ez du gizartea babesten

» Ez ditu etorkizuneko delituak saihesten

» Uneko onura sortzen du

Delinkuentziari aurre egiteko pertsona bat atxilotze ez da nahikoa, etorkizuneko bake soziala lortzeko bidean hartu beharreko neurriak: Birgizarteratze helburua

lortzeko, Tratamendu indibidualizatua izango da. Birgizarteratze-helburua lortzeko, bidea batzuk bete beharko dira, besteak beste:

Espetxealdiko zigorrak bete izana eta beste tresna batzuk daude: 1) heziketa 2) gizartearentzako lanak 3) isunak 4) zigorra etetea 5) zigorra ordezte 6) baldintzapeko askatasuna

4.2.3. PRESONDEGI SISTEMAREN INGURUKO ERAKUNDE BATZUK

Tratamenduaren arabera kokatuko genuke zigortutako pertsona

Birgizarteratze helburua lortzeko: Tratamendu indibidualizatua:

- » Aurreuposamendua: pertsonalitate-balorazioa
- » Helburua: Presoaren jarduera aldatzea
- » Tratamenduaren jasotzaileak: preso epaituei aplikatuko zaie eta EZ behin- behineko presoak (behin-behineko espetxeratze)
- » Tratamenduaren izaera → borondatezkoa, formakuntza eta lan programetan aritzea eta presoak erabakitzen du programa hauetan parte hartu edo ez. Jarrera baikorra izan behar du.

4.2.3.1. Tratamenduaren neurriak/programak:

-Espetxe Lege Organikoa Orokorraren (24. Artikulua) Aktibitate ludiko, erlijioso, hezkuntzakoak, kirolezkoak ... beteko dira.

-ELOO-ren 25 → Orduzuzko zehatza eramatea

-Espetxeen Erreglamenduaren (76. Artikulua) → Kartzelan segurtasuna, ordena eta diziiplina mantenduko da.

-ELOO-ren (66. Artikulua) → Komunitate terapeutikoak eta heziketa programatuak burutuko dira.

-Irteera programatuak: ER-ren (114. Artikulua) / -Komunitate terapeutikoaren taldeak (ER-ren 115 art.) / -Drogomenpekotasuna kontrolatzeko programak (ER-ren 116 art.) //

-Bestelako neurriak: - ER-ren (118; 122; 126; 127; 129; 128. Artikuluak). / -ELOO-ren (56 Artikulua)

4.2.3.2. Tratamenduaren funtsezko osagaia:

Lana delitugulearentzako eskubide eta betebeharra izango den oinarriko elementua dugu (ELOO-ren (26 Artikulua)) Izaera desberdinetakoa: lanbide heziketa / - Ikasketak eta heziketa akademikoa / - lan erregimena edo kooperatiben bitartez eta bestelako eginkizunak (Formazio profesionalak, kartzelan laguntzea, tailer desberdinetan egotea)

Lanaren baldintzak:

Ez da Zigorra lan egitea, ez da duintasunaren aurkakoa, Administrazioak erraztu behar du lana egitearen eginkizuna, gizarte segurantzaren arloan kokatu behar da presoak egiten duen lan hori kontratu bat moduan ezarriko zaiolako. Administrazioak onura ekonomikorik ez du izango ez delako ekintza pribatu bat. Ordainduta egongo da (ER-ren 4.2 f. Artikulua).

Guztiak egingo dute lan hauek izan ezik:

Gaixo daudenak (psikologikoki, fisikoki) berez bajaran daudenak (bajak hartzen dira). Ezintasuna duten presoak (fisiko Psikologikoa) eta 65 urte baino gehiagokoak, jubilatutako daudena gartzelan sartu baino lehen, haurdun eta haurdun eta osteko 16 egunetan dauden pertsonak eta behin behineko preso daudenak ezik

4.2.3.3. Diziplina Erregimena:

Espetxean elkarbizitza modu ordenatu eta baketsua mantentzeko dauden arauak dira. Arau hauen urrapena, betetzen ez direnean arau hauek zigorra ezarriko da. presoak eginkizun hau Ezin dute burutu, presoak ezin dutelako beste presoak zigortu.

Diziplinaren helburuak: Elkarbizitza baketsua eta segurtasuna (ELOO-ren 41 Artikulua)
Diziplinaren subjektuak: [Behin betiko kondenatuak, presoak. Salbuespena: Modulu psikiatrikoetan dauden presoak Err. 188.4 Artikulua]

- Hastapenak: 1- Legezketasun hastapena. 2- Kulpabilitatearen hastapena. 3-Proporzionaltasun hastapena

- Ez-zilegi diziplinarioak. Motak: Err. 108-111 art.

Oso larriak diren faltak (108 Artikulua)

- 1- Altxamenduetan parte hartzea, 2- Lesionatzea, mehatxatzea, hertsapenatzea, 3- lhes egitea faboratzea, 4- Espetxearen tokiak txarto erabiltzea apropos, eragindako kalteak larriak izanez. 5- Beste pertsonen gauzak hartzea. 6- Establezimenduaren segurtasuna lesionatzeko, faltsuak diren datuak edo berriak ematea. 7- Gaizpideetan parte hartzea morala publikoa lesionatzeko asmoz

Larriak diren faltak (109 Artikulua)

- 1- Kalumniatzea, iraintzea, irainak eragitea funtzionarioen aurka. 2- Agintaritzak edo funtzionarioek emandako aginduak desobeditzea. 3- Beste presoak altxatzerako inzitatzeta. 4- Beste presoak insultatzea edo gaizki tratatzea. 5- Espetxearen tokiak txarto erabiltzea apropos, eragindako kalteak larriak ez izanez. 6- Debekatuta dauden gauzak sartzea. 7-Debekatuta dauden

jokoetan parte hartzea. 8- Establezimenduaren jokabide ona lesionatzeko, faltsuak diren datuak edo berriak ematea

Arinak diren faltak:

110 Artikuluan izendatutakoak

- Zigor diziplinarioak. Motak ELOO-ren 42 Artikuluan

Arazotsuena: presoan bakartzea: Presoaren gelan bete behar dute. Beste batekin badago, berdina den gela batean beteko da. Debehatuta daude zigortzeko gelak. Beteazpena:- Medikuen txostena; - Eguneroko kontrola: osotasun fisikoa eta psikikoa bermatzeko; - Medikuek erabaki jarraitzea edo etetea

Ez dute beteko: gaixoak, ahurdun dauden emakumeak, amak erditzean 6 hilabetetan;- bular-emaile emakumeak; eta haurrak dituzten emakumeak

Komunikazio intimoak, familiakoarekin debehatuta

Erre-ren 254.5: baldintzak agertzen dira artikulua honetan

Kritikak: Konstituzioaren 25.3 artikulua lesionatu?. Konstituzio kontrakoa: ez da espetzealdiko zigorra, espetxeko egonaldiaren baldintzen aldaketa

- Tratu apalesgarria edo gizagabekoa –KE-ren 15 art-?.

- Portaera bakoitzarentzako zigorrak → ER 233 art.

Tresna koertzitiboak erabiltzea:

Espetxeen segurtasuna eta elkarbizitza mantentzeko

Erreglamenduaren 72. artikulua: salbuespena (gaixo dauden presoak, haurduna zein amak diren emakumeak ...). Zuzendariak onartu egiten dituen neurriak dira hurrengo egoerak ekiditeko. Egoerak (ELOO-ren 45 Artikuluan):

lhes egiteari aurre egiteko; Ekintza bortitzei aurre egiteko; Presoen erresistentzia aktiboa edo pasiboari aurre egiteko

Tresna Koertzitiboak hurrengoak dira:

- » Behin behineko bakartzea
- » Indar fisikoa (proportzionala)
- » Aerosolak
- » Bilurrak
- » Su armak: debehatuta (ELOO-ren 45.4 art)

4.2.3.4. Kanpoko munduarekiko harremanak

Presoaren isolamendua ekiditu nahi da

Ohikotasunez bere lagunekin, familiarekin ahoz edo idatziz komunikatzeko prozeduraren bitartez. Komunikazio guztietan intimitatea bermatu behar da, muga bakarra segurtasuna (ELOO-ren 51.1 art) mantentzera begira erabiltzen diren neurriak, motaren arabera muga bat edo bestea izango dugu.

Komunikazio Motak:

Ahozko komunikazioak (Err. 42art):

- » Lokutorioetan egingo dira beti ere presondegiko langile batek zaintzapean
- » kontaktu fisikoa izan gabe
- » Gutxienez astean bitako maiztasunarekin (zigorra ezarrita badu kasu honetan ez ditu bisitak)
- » Zuzendaritzak ordutegia zehaztu (asteburuetan...)
- » Iraupena: gutxienez 20 minutu

Idatzizko komunikazioak:

Ez dago mugarik, nahi dituzten bezain beste eskutitz idatzi dezakete. Baina mugatu egiten bada segurtasuna dela eta astean bitan (Err. 46 art.). Kanpoko eskutitzak ireki dezakete ere baldin eta eskutitza barruan sartu daitekeen ezer ekiditeko.

Beste kartzeletako presoaren artean ezin dute eskutitzak idatzi segurtasunaren eskuzarekin. (Baimena eskatuta zuzendariari salbuespen moduan)

Telefonoz egindako komunikazioak:

Telefonozko komunikazioak salbuespena izango dira, berez legez presoak etxetik urbil egon behar direnez ez da "behar". Partikularrak eta profesionalak (ELOO-ren 51 art)

Bi kasuetan besterik ez (Err. 47 art.) da onartzen telefonozko komunikazioa:

- Familia oso urruti bizi eta ezin badu hurbildu bisitak egiteko
- Premiazko gaia komunikatu behar baldin bada (abokaturi edo beste pertsoneri)
- Eskatu behar zaio Zuzendariari
- Iraupena: 5 minutukoa baino luzeagoa ez da izango
- Eta Funtzionario baten aurrean (intimitatea????)

- Ordainketa: presoak. Salbuespena: zentroan sartzea edo zentrotik trasladatzearen komunikazioa

Komunikazio Orokorrak

- » Familarekin, lagunekin, bikotearekin....
- » Ahozko komunikazioak baino zuzenagoak dira
- » Leku aproposetan: intimitatea bermatzeko
- » Presoak eskatu beha ditu
- » ELOO-ren 53 artk: ateratzeko baimenak ez dituztenentzat bereziki aurreikusten ditu
- » Bakartze zigorra

1991ko maiatzaren 24ko Instrukzioak zehaztu egiten du harremanak izateko leku hauek: Dimentsioak zehazten dira, 6 pertsonak egoteko modukoak (Komuna, Altzariak: 1- Familiarrak: mahaia, aulkiak, sofa / 2- Intimoak (bis a bix): ohea, pertxeroa, aulkiak, Arropa: oherako arropa eta toallak. Hornidurak: zakarrontziak eta hautsontziak) Garbiketa mantentzera begira: zegoen moduan utzi behar dute.

» Komunikazio intimoak edo “vis a vis”: sexualitatearen eskubidea bermatzeko. Hilabetean behin (gutxienez ordu batekoa eta gehienez 3 ordukoa). Eskubide hau izateko lehen ezkontuta zeudenak zutenak, orain frogatu behar da 6 hilabete baino gehiagoko harremana dutena eta frogatuta (eskutitzen bidez edo bisiten bidez ...)

Abokatuarekin eta prokuradorearekin komunikazioak. Beste profesionalekin izandako komunikazioak (Ministeritza Fiskala; Epailea; Arartekoa eta ELOOren 51.3 Artikulua)

• ***Ateratzeko baimenak:***

Tratamenduaren zati bat da Helburua: birgizarteratzea. Bizitza askatasunean prestatzeko modukoak direlako. Ez dira onura edo sari penitentziarioak, baizik eta beharrezkoak diren tresnak bizitza askatasunean prestatzeko

Abantailak:

- » Bizitza askatasunean prestatzeko tresnak
- » Lotura familiarrak indartu
- » Espetxealdiaren tentsioak murriztu
- » Jokabide ona bultzatu

- » Erantzukizunaren zentzua sendotu
- » Presoaren garapena zehaztu

Desabantailak: Porrot egitea

ATERATZEKO BAIMEN MOTAK:

1) Baimena orokorrak: ELOO-ren 47.2 Artikulua

Gehieneko iraupena 7 egunekoa jarraian. Urtean: 36 egun/48egun topeak dira 2. Eta 3. Graduan dauden presoentzako. Aurretik talde teknikoaren txosten bat izan behar dute eta kondenaren 1/4 bata bete izatea eta jarrera ona izatea.

Behn behineko presoentzako ez daude baimen hauek printzipioz, baina nahi izatekotan eskaera berezien bitartez burutu behar dute eta epaileari eskatu behar diete zuzenean.

2) Salbuespeneko baimenak: Edozein presoentzako

2.1) Arrazoi familiarrak eta pertsonalak (ELOO-ren 47.1 Artikulua): Gurasoen, seme-alaben, bikotearen, anai-arreben edo bestelako pertsonen heriotza edo gaixotasun larria dituztenean.

Aita izatea (Erre-ren 155 Artikulua.)

Garrantzitsuak diren arrazoiak: Ezkontzak; bataioak

Iraupena: arrazoiaren arabera baina baimena orokorren limitearekin

2.2) Osasun-arrazoiak: Err. ren 155.4 art. (Preso guztientzako

Iraupena bi kasu desberdin daude. 1) Gehienez 12 ordukoa (kanpoko kontsultak egiteko) izango da. 2) 2 egunekoak (penitentziarioa ez den hospital batean sartzeko)

3) Asteburuetako baimenak:

3. graduan (Erra. 87 art.) Tratamendurako batzordeak arautuko dute eta Ostiralean, arratsaldeko 16:00etan irtengo dira eta astelehenean,goizeko 8:00etan (jai egunetan gehituta) bueltatuko dira

Baimenak etetea edo ezeztatzea:

– Etetea: Baimena hasi baino lehen, inguruabarrak aldatu badira. Zuzendaritzak erabaki Err. 157 Artikuluan zehazten da eta artikulua honen bigarren Bigarren puntuan Ezeztatzeadakar, hau da, Baimena aprobetxatu ihes egiteko edo delituak burutzeko.

4.2.4.PRESONDEGIAREN JARDUERAREN KONTROLA: ZAINZA EPAILEA

Zaintza epailea ez da ebazpena jarri dion epailea, epaile berezia da, hau da behin zigorra ezarrita presoaren jarraikortasuna egingo duena da. Botere judizialean dagoenez orokorrean, betearazpenaren aldaketaren batek, legezkotasun hastapena dela eta, kontrol judiziala izan behar da.

Zaintza epaileen Funtzioa: 1)Agintaritza penitentziarioen egitateen legezkotasuna bermatzeko dago. 2)Presoen giza-eskubideen errespetua bermatzea.

Kontrolatuko du (kondenaren etetea / baldintzapeko askatasuna aginduko duena / Onura penitentziarioak ematea

Ez du kontrolatzen:

14 egun baino gutxiagoko isolamendu zigorra tope moduan. Salbuespen kasuan izan ezin, horiek bai kontrolatuko ditu.

- 2 eguneko baimenak (kanpora ateratzeko)

5. GAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (I)

5.1. BIZITZAREN AURKAKO DELITUAK

A. Babestutako ondasun juridikoa

Bertan Bizitza izateko eskubidea babesten da eta hau da xedaezina da, hau da, ezin duzu erabaki norbait hiltzea, eskubide unibertsala delarik (jende guztiak du bizitzarako eskubidea, jaiotzen garenetik).

Mugak:

- Hasiera: Guztiz banatuta egotea amaren tripatik
- Bukaera: Bihotza eta burmuina guztiz geldiz izatea

Tipo motak:

- Hilketa (138 artikulua.):
 - » Amankomuna: 138.a. artikulua betetzen bada, gero besteak begiratu behar da, hau basikoa da.
 - » Doluzkoa
 - » Zuhurtziagabekeriazkoa (142. Artikulua)
 - » Saiakuntza
- Erailketa (139 art.)
 - » 1. Maltzurkeria (22.1 art.)
 - » 2. Prezio, sari edo hitzematerengatik
 - » 3. Ankerkeriaren bidez ofendituaren mina nahita eta bihotz gogorrez handitzea (22.5 artikulua.) Norbait hil aurretik zatitzen hasi
 - » 4. Beste delitu bate egiletza errazteko edo beste delitu baten egiletza ez ezagutarazteko

140. Artikulua: Biktima bereziki ahula denean, 16 urte baino gutxiago dituenan edo elbarri denean. Delitua egitea bortxatu ostean. Delitua egin badu talde terrorista batean dagoenean. Bi erailketa baino gehiago egitea. → Bizi osorako espetxe zigor errebisablea, kasu hauetan ematen da. Hilketan hauetako bat betetzen bada, gradu bat igoko da zigorra.

5. 2. OSOTASUN FISIKOAREN AURKAKO DELITUAK

Ondasun juridiko babestua da, bertan, osotasun fisikoa zein psikikoa babesten da.

Lesio motak:

- Lesio bera: larriak (147.1, 148): Medikura joan behar izatea eta tratamendu bat jarraitu behar izatea. Medikua zerbeit egin behar du, segimendua ez da tratamendua. Adi: Erreabilitazioa

arinak 147.2 eta 147.3 artikulua: Tratamendu bat jarraitu behar ez izatea. Jipoitzea baina lesioak ez sortzea, soilik kolpea.

- Organo nahiz gorputz-adar nagusi edo zentzumen baten galera nahiz gauzaeza edo inpotentzia edo antzutasuna, itxuragabetasun larria edo somatiko larria eragitean (149 eta 150 artk.)

- Zuhurtziagabekeriak eragindakoak (152)

- Ofendituaren adostasuna: Beti zigortzen dira lesioak adostasuna egon arren

Harreman sadomasokistak: Zigortzen dira.

Eraginkorrak: Soilik kasu hauetan balio du adostasunak. Bi salbuespen daude, zigorra txikituko dutenak:

» Erabateko eraginkorra da: organo-birlandaketetan eta adituek egindako antzutzeko eta sexu-aldaketako kirurgiako ebakuntzetan (156 art.)

» Beste kasuetan zigorra arintzea besterik ez du egiten (155 art.). Kasu hauetan zigorra gradu batean edo bi gradutan jaisten da. Adostasuna Nolakoa??:

Askatasunez, onartua izatea, espontaneo eta espresoa

5. 3. EMAKUMEEN ETA FAMILIAREN AURKAKO LESIOAK

1/2004ko Lege Organikoa genero indarkeriari buruzkoa:

Erreforma honekin familian bikotean gertatutakoa astundu egiten du

- Emakumeen diskriminazioaren aurkako tresna
- Familia eremuan defendatzeko gaitasunik ez dutenen aurkako tresna
- Erreforma penalak :148 (lesioak), 153 (lesioak), 171. 4 eta 5 (mehatxuen arloan); 172.2 (derrigortzeak)

Portaera tipikoa = delitu arinak (zigor arina)

- » Delituak ez diren lesioak (zauri bat)
- » Delituak ez diren urripen psikikoak (ez duzu ezertarako balio)
- » Kolpe edo tratu txarra = lesiorik ez (zaplastada bat edo bultzatzea)
- » Mehatxu arinak

Helburu juridikoa:

- » subjektu pasiboaren beherapena edo humilazioa lortu nahi duten portaera guztiak zigortzea
- » Egilearen nagusitasun abusua
- » Kontrolpean izatea biktima
- » Genero rolen banaketa
- Proporzionaltasun hastapena??
- Ondasun juridiko babestua???:
- » Osotasun fisikoa??
- » Osotasun morala

6. GAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (II)

6.1. ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK

Askatasunaren aurkako delituak. EK 17. Artikuluan jasota dago, oinarrizko eskubidea dugu hau.

Askatasuna/Segurtasuna

Motak: 1-Mugitzeko askatasuna (163-168 artk); 2-Askatasun pertsonala (169- 172 ter artikulura.); 3-Sexu-askatasuna (178-194 artikulura)

6.2. MEHATXUAK ETA DERRIGORTZEAK MEHATXUA

Kontzeptua: Norbaiti, kalte egin nahi zaiola adierazteko egiten zaion hitzezko edo keinuzko adierazpena. Gaitza (Jpren ustetan):

– Etorkizunekoa – Zehatza – Posiblea – Beldurtzeko egokia – Serio– Iraunkorra

Mehatxua dagoen pertsonari edo berarekin harreman estu izango duen edonori zuzenduta dago. Motak (Delitua den gaitzarekin mehatxatzea, delitua ez den gaitzarekin mehatxatzea; xantaia):

Delitua den gaitzarekin mehatxatzea(169 artikulua): hiru osagai:

– Mehatxuak “delitua” osatu behar dutenean: ez falta (Hilko zaitut dirua ematen ez badidazu)

– Baldintza zilegia edo ez-zilegia (169.1)

» Hilko zaitut zure zorra ordaintzen ez baduzu (zilegi)

» Hilko zaitut bortxatzen ez bazaitut

– Baldintza barik (169.2)

Delitua ez den gaitzarekin mehatxatzea (171.1; 171.4 eta 171.5 art.):

– 171.1 artikulua: hiru osagai:

Kalte delitu ez izan: delitu burutu duen pertsona bati, esatea salatuko dugula dirua jasotzen ez badugu. (delituak salatzea ez da kalte bat)

» Mehatxua baldintzapekoa: 17.7

» Baldintza ez izan bidezkoa den jarduera

– 171.4, 171.5 eta 171.6: genero indarkeriari buruzko lege organikoaren bitartez (irak)

• Xantaia.

- 171.2 (1995ko Zigor Kodeak indarrean sartu zuen)
- Portaera: diru kopuru bat eskatu, zenbait datu pribatuak edo intimoak ez salatzeko
- 171.3 Xantaia berezia: bi ezaugarri:
 - » Zigorra bi urte baino gutxiagoko espetxealdi-zigorra izatea
 - » Zigorra handiagoa baldin bada, gradu bat edo bi jeitsi
 - » Mehatxua errazago zigortzeko

DERRIGORTZEAK/HERTSAPENAK 172.art

- Portaera:

Legeak debekatzen ez duena egitea eragotzi, Egin nahi ez duena egitera behartu, zuzena izan ala ez Indarkeria erabiliz

6.3. SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITUAK

- Sexu erasoak
- Sexu abusuak
- Sexu jazarpenak
 - Erakuts zalekeria eta sexu-zirikatzeko delituak
 - Prostituzioaren inguruko delituak eta adingabeen galbideratzeko delitua

Adin txikiko kasuan sexu askatasuna izanda baina sexu ukigabetasuna dute hau da libre eta egoki erabiltzeko sexu garapena kentzea datza ondasun juridikoak

Lehen 13 urteekin jartzen zen sexu askatasuneko muga, erreformaren ostean 16 urte arte igo da.

6.3.1. SEXU-ERASOAK

Larderiaz (intimidazioa) edo indarkeriaz egindako erasoak 178-180 quater artikulura. (1-5 urte arteko zigorra du) (Agresion sexual)

bortxaketa (abuso sexual) 179 artikulua: Larriena

Bortxaketaren ezaugarri nagusia: haragitzea (penetracion) edo gorputz- adarrak edo edozein gauzak sartzea baginatik, uzkitik zein ahotik kodean askotan azken hau ez du kontuan hartzen. (6-12 urte arteko zigorra).

Erreformarekin delitu bat estaltzeko beste delitu bat egitea kontuan hartuko da eta zigortuko da, lehen eta gaur proportzionaltasuna ez du baia lehen ez zen kontuan hartzen aurretik beste delitua estaltzeko egiten zen.

Tipo kualifikatua (180 artikulua), hurrengo inguruabarrak ematen badira:

Inguruabarrak/kualifikazioak:

- 180.1: indarkeria edo larderia bereziki apalesgarriak edo isekagarriak (12-15 urte arteko zigorra)
- 180.2: Taldeka aritzea (biktimaren ahulezia) 2 pertsona baino gehiago aldi berean aritzea (12-15 urte arteko zigorra)
- 180.3: pertsona ahula. 13 urte baino gehiagokoentzat, ezgaitasuna duten pertsonak ... (baina 13 baino gutxiagokoak ez, beste lege berezia dute)
- 180.4: Senidetasun-harremanak edo nagusitasun abusua (irakasle batek ikasleari, bere kargu publikoagatik baliatu ...)
- 180.5: erabilitako bideak bereziki arriskutsuak, Indarkeriarekin egindakoak (adibidez: laban batekin)

Egiletza Indarkeria eta larderia oinarritzko elementuak: hirugarren batek egiten badu egilekidetza izango da.

Partaidetza: Partaidetzaren arau orokorra kontuan hartuko da, ezinbesteko laguntzailea eta sopikuntzat onartuko da.

Sopikunak delitua estaltzen laguntzen badute eta familiakoa izango da ez du zigorrik jasoko. Beste norbait bada ez duzuna harreman zuzen eta estua ba zigortuko zaioa

6.3.2. SEXU-ABUSUAK (181.ART) _INDARKERIA EDO LARDERIARIK EZ

- Konorterik gabe edo buru nahastea dutenen aurkakoa denean: 1) Ez- gaitasunik onartzeko edo ados egoteko gaitasunik ez izatea. 2) Zenbait egoera berezi: Jpri jarraituz “estados de inconsciencia, durmientes o narcotizados”
- Borondatea bertan behera utzi substantziekin (berria): Farmakoak , drogak edo edozein substantzia naturala edo sintetikoekin.
- 181.3 nagusitasun egoeraz baliatzea: Adostasuna bai, baina akastuna subjektu aktiboaren nagusitasunari esker
- Tipo kualifikatuak: 181.4 artikulua: Aurreko artikulua kasuetan bortxaketaren portaerak eragitea.

Engainuaren bidezko abusua (182 artikulua.): Lortzen bada, artikulua berezia dago.

16 urte-18 urtetako pertsona bati sexu-abusua egitea zigortzen da, adin tarte honetatik gora ez da zigortzen

Ezaugarria: “engainu” :

» Egileak erabiltzen duen maiztasun edozein bidea harreman sexualak izateko

» Egileak ezagutu behar egindako promesa gezurra dela eta biktimaren adina

Kapitulua II bis: • 183: 16 urte baino gutxiago dutenen aurkako abusu eta erasoak izango da

6.3.3. SEXU-JAZARPENA (184 ART.)

Oinarrizko ezaugarriak:

Lan, irakaskuntza edo zerbitzu eskaintza harremanetan mesede sexualak eskatzea.

Jokabide horrekin biktima larleriako, etsaigoko edo umiliazioko egoera objektibo eta larrian jartzen badu egiten den eskakizunarekin.

Nagusitasun egoeran → kualifikazio bat ematen da (lankideen artean)

6.3.4. ERAKUTS-ZALEKERIA ETA SEXU-ZIRIKATZE DELITUAK

1. Erakuts-zalekeria (exhibizionismoa) (185 artikulua)

Ekintza lisunak (actos obscenos) egitean adin txikiko edo ezgaituen aurrean zigortuta dago. Subjektu aktiboak erakusten ditu bere organu sexualak (sexuharremanak lortu nahi gabe) edo hirugarren bati behartu erakustera. Hiri herrietan ordenantza ez duelako usten eta isuna jartzen da.

Z.Penalak ez du parte hartuko subjektu pasiboak adingabeak edo ez-gaiak ez direnean. Probokatzeko asmorik gabeko portaerak: organu sexualak erakutsi pixa egiteko, eguzkia hartzeko (tipotik kanpo)

2. Material pornografikoa hedatzea (186 artikulua)

“Edozein bide erabiliz” adingabeen (17 urte arteko gazteak) edo ez-gaien artean pornografiako materialaren salmenta, hedapena edo erakuspena zigortuta dago. Tipo penaletik kanpo geratzen da helduen arteko pornografia.

6.3.5 PROSTITUZIOA ETA ADINGABEEN USTELKERIARI BURUZKO DELITUAK

Prostituzioan aritzea ez da delitua, baina adingabeen eta ezgaituen eta behartutako kasuetan zigortuko da.

A) Adingabe edo ezgaien prostituzioa (188 artikulua) induzitu, sustatu, faboratu edo erraztu egiten denean zigortuko da.

– Subjektu aktiboa:

» Behartzen dutenak

» Adingabeen eta ez-gaiaren bezeroak_5/2010 LO, bai

B) Adin nagusiaren prostituzioa: (187 artikulua)

Sexu-askatasunaren urrapena gertatzen denean.

Portaera tipikoa: Prostituzioa egitera behartze duzunean pertsona indarkeriaz, larderiez, engainuaz edo nagusitasun zein beharrizan egoeraz nahiz biktimaren ahuleziaz abusatzean

Adostuta dagoen prezioa ez ordaintzeak ez du betetzen tipo hau (engainuaz): Estafa (248 artikulua) moduan ulertuko da.

Etekinak edo onurak (“Lucroa”) ateratzen duenak (diruaz hornitzen dena ekintza hauengatik), nahiz eta prostituzioan dagoena ados egon, 188.1 “in fine” betetzen du.

C) Adingabeen pornografia

189.1 a) » adingabeak edo ezgaiak erakartzea edo erabiltzea erakutszalekeriazko edo pornografiazko helburuekin, pornografiazko materiala egiteko, edo honen finantzaketan aritzen dena zigortuko da.

189.1 b) » Produzitu, saldu, zabaldu, erakutsi, eskaini edo erraztu, adingabeak edo ez-gaiak erabili izan diren material pornografikoen.

» Aurreko helburuetarako izatea

– 189.5 artikulua 189.4. _adingabeak edo ez-gaiak agertzen diren material pornografikoa izatea, erabilera pertsonalarako, edo ikuskizunetara joan

– 189.1 artikulua _adingabe edo ez-gai erabili barik baina haien ahotsa

7. GAIA. ZUZENBIDE PENALAREN ZATI BEREZIA (III)

7.1 ONDARE DELITUAK

Babestutako ondasun juridikoa: ondarea / ondasuna: Baliozko gauzak, bereziki, jarduera ekonomikoaren bidez eskura daitezkeen produktu materialak.

Z.Penalak kontzeptu mistoa / bitarikoa erabiltzen du (kontzeptu juridiko- ekonomikoa), hau da, Gauzaren balore ekonomikoa eta Gauzaren eta pertsonaren arteko harreman juridikoa

EZAUGARRIAK

Objektu materialak balio ekonomiko bat izan behar du.

Subjektu pasiboak, babesten den harreman juridikoa izan behar gauzarekin (jabetza edo edukitza)

Ondarezko kaltea: Juridikoki pertsona bati ondarearen murrizketa ekonomikoa

ONDARE ONDASUAREN EDUKIA

- Eskubide errealak
- Etorkezunean lortuko diren irabaziak ez dira sartzen (lucro cesante)
- Jabetza
- Edukitza

A) Ebasketa (hurto)

DEFINIZIOA

Z.Kodeak: “higigarria den gauza bat hartzea, irabaziak lortzeko asmoz, jabearen borondaterik gabe” Beste baten ondasunak hartzea, norberarena ez den zerbaitez jabetu. • Ondarearen aurkako delituen artean oinarritzkoena da. 2 Motatakoak daude: 1-Propioa edo harrapaketa (234 art.) 2-oinarrizko tipoa

Harrapaketa Tipo kualifikatuak (235 art.):

- Irabaziak lortzeko asmoa _Aberaste delitua
- » Gauzaren balioaren arabera, edo hiru aldiz egi
- Probetxu ekonomikoa _berea edo 3. batena
- Fortum possessionis (236 art.)
- Gauzaren balioa: 400 euro
- Jabearen adostasuna gabe

B) Lapurreta (robo)

Norberarena ez den zerbaitez jabetu baina gauzen gaineko indarrez egindakoa eta pertsonen aurkako indarkeria edo larderiazkoa ekintza egitean. Zigortzen da 238 artikulua: gauzetan indarra erabiltzea:

- Eskalatzea
- Horma, sabaia edo lurzorua apurtzea edo atea edo leihoa haustean
 - Lapurreta egiten den lekuan nahi beste leku batean, armairuak, diru-kutxak edo bestelako altzari zein objektu itxi edo zigilatuak haustea, horien sarrailak bortxatzea edota horien kodeak asmatzea euren edukia osteko
- Giltza faltsuak erabiltzea 239 artikulua.
 - » Gakordeak eta antzeko tresnak
 - » Jabeak galdutako giltza bidezkoak, edo zigor-zuzenbideko arau bat hautsiz lortzen direnak
 - » Errudunak bortxatutako sarraila irekitzeko, jabeak erabiltzen dituen giltzak ez, beste edozein (kopiak)
 - » Txartelak edo mandoak
 - Alarma zein zaintza bereziko sistemak deuseztatzea: Gauzen gaineko indarrez egindako lapurreta kualifikatuak
 - 235koak + Etxe biztanledunean edo Jendeaurrean zabalik dagoen eraikin zein lokalean lapurreta gertatzea
- Pertsonen aurkako indarkeria edo larderia

INDARKERIA LARDERIA

- » Vis(Indar) fisikoa » Vis (Indar) psikikoa
- » Pertsonaren aurka » leku zein denbora inguruabarrak aprobetxatuz intimidazio psikologikoa (adib. : gauzez, handia eta indartsua den gazte batek atso bati eskatzea dirua. AGk onartu larderia, mehatxuak egin barik – A.Gren 4326/1981ko Sententzia, azaroaren 14koa

-----HEMENDIK AURRERA EZ DA SARTZEN-----

C) Estortsioa (243 artikulua)

– indarkeriaz edo larderiez ekintza edo negozio juridiko bat egitera edo ez egitera behartzea, pertsona horren edo beste inoren ondarearen kalterako

D) Ibilgailuak erabiltzeko lapurreta eta ebasketa (244 artikulua)

– ibilgailu motorduna edo motor-bizikleta ostea

– Elementu subjektiboa:

– “jabetzeko asmorik gabe”,

– Erabiltzea besterik ez du helburua izango

– 48 ordutan itzuli zuzenean edo zeharkako moduan

– 400 euroko balioa edo 4 aldiz urte batean _bestela falta 623.3

– Indarra gauzetan edo pertsonengan egonez gero : gohiko erdia edo 242ko lapurreta

E) Usurpazioa

• 245.1: gauza higiezina okupatzea edo ondasun higiezinaren gaineko beste baten eskubide erreala usurpatzea

• 246 art. herri edo landen mugarteak nahiz mugak aldatzea _400 euroko onura

• 247 art: erabilera publikoko nahiz pribatuko uren ibilbidea aldatzea_400 euroko onura

F) Iruzurra: 248 eta hurr.

– Engainuaren bidez, beste pertsona baten ondarean kalteak sortzea

– Aberaste delitua _Irabaziak lortzeko asmoa

– 400 €_gutxiagokoa: 623.4 art.

– Barne: iruzur informatikoa edo besteen kreditu txartelak erabiltzea

G) Bidegabeko jabetzea (253 art.)

– Gauza baten zaintza izatea eta itzultzeko garaian ez itzultzea edo esatea ez duela inoiz izan

– Galdutako gauzaz jabetzea

– Norbaitek hutsegitez emandakoarekin geratzea

H) Kalte delitua _263 eta hurr.

- Ondarearen aurkako kaltea, murrizketa
- Urrapena, dohainik suertatzen da.
- Ez aberaste delitua.
 - Portaera tipikoa: kalteak eragitea (balore ekonomikoa) Kalte moralak ez dira barnebiltzen
- Doluzko eta zuhurtziagabekeriakko portaerak

7. 2 DROGA TRAFIKOA

- Babesturiko ondasun juridikoa: osasun publikoa
- Jokaera tipikoak:
 - 368 art. “Droga toxiko, sorgogarrri edo gai psikotropikoak landatu, egin edo trafikagai hartzen badituzte, edo beste modu batera, horien legez aurkako kontsumoa sustatu, faboratu edo errazten badute”
- Kontsumora errazten duten edozein portaera: donazioa, gonbidapena, banatzea (sustatu, faboratu edo erraztu)
- Autokontsumorako kantitatea izatea ez da zigogarrri
- Kualifikazioak :
 - Subjektu aktiboaren arabera: 369.1.1, 369.1.2. art. eta 369bis art.
 - » autoritate edo funtzionario publikoa, medikua, gizarte langilea, irakasle edo hezitzaile ogibide edo karguan diharduela;
 - » errudunak bestelako jarduera antolatuetan parte hartzea eta delituaren bidez errazago gauzatzen diren delitu jardueretan
 - » Erruduna erakunde edo elkarte baten bazkidea denean, eta elkarte horren helburua drogak hedatzea izatea
 - Subjektu pasiboaren arabera: 369.1.4 art. Adingabeei helaraztea sustantziak
 - Lekuaren arabera: 369.1.3 eta 369.1.7 art.
 - » jendeaurrean zabalik dauden establezimenduetan , langileek edo arduradunek eginda

- » Ikastegietan, zentro, establezimendu nahiz etxe militarretan, espetxetan , mendekotasuna gainditzeko zentroetan edo hauetatik hurbil
- Objektu materialaren araberakoa: 369.1.6 eta 369.1.5
- » Aipatutako gaiak andeatu, manipulatu edo elkarrekin nahiz beste batzuekin nahasten direnean, osasunaren aurka gerta daitekeen kaltea handituz
- » kopuru garrantzi handikoa
- Bigarren mailako kualifikazioak (370 art)
 - 18 urte baino gazteagoak edo ez-gaiak izango direnak erabiltzea trafikatzeko: 370.1
 - Subjektu aktiboaren araberakoa: 370.2 art. Antolakundeen buru, administratzaile edo arduradunak direnean
 - Jokabideak muturreko larritasuna izatea
 - 371 art. Drogak egiteko ekipo, material, gaiak edo produktuak fabrikatu, garraiatu, banandu, eurekin merkataritzan aritu edo bere eskuetan izatea
 - Helburua ezagutuz: drogak landu, ekoitzi edo fabrikatzeko